

Gure erriaren bizitza aurrera doa.

Īnoz ez da gelditzen.

Ortxe sartzen dira guztion asmapenak,  
gure sendien ardurak eta itxaropenak,  
guztion etorkizuna.

Bizkaia beti egiten izan da onelan. Alegiñez.

Zurtasunez. Gure luraren balio ederrak aurreratuz,  
eguneroko eragozpenak azpiratuz. Gauza barriak eta obeak egin eta egin.  
Eta orrela jarraitu bear dau. Amesez beterik, gaur, biar eta etzi.

Bizkai'ko Aurrezki-Kutxaren antzera,  
au Bizkaia'gaz eta bertoko jenteagaz aundi egiten da  
beronen asieratik eta beti laguntzen eta laguntzen.

Guztiona dalako.

Orregaitik da Bizkai'koa.



Nuestra gente.  
Nuestra ilusi3n.  
Gure erria.  
Gure asmo bakarra.

CAJA DE AHORROS  
VIZCAINA



BIZKAIKO  
AURREZKI KUTXA

Entidad creada y promovida por la  
Diputaci3n Foral del Señorío de Vizcaya.



Edita:

**EUSKERAZALEAK**

ASOCIACION PARA EL FOMENTO DEL VASCUENCE

Colón de Larreátegui, 14-2.º - 48009- BILBAO

Marrazkiak: Azalekoa ta barrukoak:  
GOIRI'tar Pia

# EUSKALERRIKO IPUIÑAK BIGARREN ATALA

## AURKEZPENA

Ona emen, irakurle, EUSKALERRIKO IPUIÑAK liburuaren bigarren atala.

Gogo biziagaz eta esku zeatzagaz aukeratu ebazan Beobide'tar Jose Luis Aita Karmeldarrak Euskalerriko ipuinlaririk onenen idazkietatik ale oneik eta orain urte batzuk ain arrera ona izan eben ipuiñen lenengo atala argitaratu zan, EUSKERAZALEAK ALKARTEA'ren babespean.

Baiña EUSKERAZALEAK ALKARTEA'k ondo daki gure elertiaren barruan ipuiñak eta irakurgaiak dauken garrantzia aundia dana eta orregaitik, bigarren atal au argitaratzean argitalpen txukunagoa egiteko alegin berezia egin dau.

Apaingarriak ezarteko, marralarien artean norgeiago bat eratu eban eta lanak ugari ta ederrak aurkeztu ziran. Euren artean orretan trebeak diranak aukerapena egin eben eta Goiri'tar Pia urten zan saridun. Liburu onetan irakurleak ikusi al izango dauzan apaingarri ederrak orrelan izan dira ba aukeratuak.

Euskaldunen artean, eta bararizko ere baten bizkaitarren artean, euskeraz irakurteko zaletasuna, umeen naiz elduen artean, ugaritzen ba'da, orixe izango da gure lanaren eta alegiñaren ondorenik pozgarriena.

EUSKERAZALEAK

## AURKIBIDEA

	Pág.
ERENSUNGEA .....	5
ALOSTORREA .....	6
URTSUA'ko ERMITAN .....	7
TXARRI-USAIÑA .....	8
AITA SAN ANTONIO .....	10
GERENA'ko MEZEA .....	11
ELTZABURU'ko ERRENA .....	12
ARDAOARI EZIN ITZI .....	13
GERNIKA'ko BATZAR BATEN .....	13
IRU-EGIA .....	14
KUKUBEL .....	16
LÉDEA'ko ZUBIAN .....	18
EREÑOZAR .....	18
LAKUNTZARREN ERIZPENA .....	20
ARTZAIN BILDURBAKOA .....	21
GETARIA'ko ORIOA .....	23
KOIKE-IGURTZAILLEA .....	24
KAXARRANKA .....	25
DOMINISTIKUN .....	26
LUKUNTZA'ko GALDAREA .....	27
JENTILLA TA KRISTAUA .....	27
ARGIDUNA .....	29
ILLEN ARGIAK .....	29
BASERRIA .....	30
MUGARRIAK .....	31
MUGARRIEN AUZIAK .....	32

ARREOA .....	32
ESTEGUAK .....	33
OGIA .....	35
ATZAZKALAK .....	36
ORRAZIA .....	36
KATUA .....	36
SAPOA .....	38
SATORRA .....	40
TXANTXANGORRIA .....	40
TXANTXANGORRIA TA TXEPETXA .....	41
BELEA .....	41
LOIDI'ko NESKATXA .....	42
KORU'ko ANDRA MARIA'ren MIRARIA .....	42
EZTIBALIZ'ko ANDRA MARI .....	43
KARIDADEA .....	43
SAN MARTINTXIKI'ren ESTUTASUNA .....	46
ATARRABIO .....	47
ATARRABIO ERROMAN .....	50
AXULAR'en ITZALA (GERIZEA) .....	51
AZELAIN'go ZUBIA .....	54
NIRE (ZURE) ARIMEA NIRETZAT, NIRE DIRUA IRETZAT (ZURETZAT) .....	55
GAUEKO .....	57
GAUEKO TA KATALIN .....	57
TARTALO .....	58
YOLDI'ko ZEZEENA .....	59
NEUK NEURI .....	61
OKINA'ko ARDIA .....	61
JENTILLEN ARAOA .....	62
JENTILLEN INDARRAK .....	62
JENTIL-ARRIAK .....	63
ERROLAK-ARRIAK .....	63
IRU EGIA .....	64
SAN MARTIN ETA BASAJAUNA .....	65
SAN MARTIN TXIKI TA BASAJAUNA .....	66

BASAJAUNAREN ARGIMUTILLA .....	67
BASAJAUNA .....	67
GAZTELU'ko LAMIÑAK .....	69
LAMIÑA BAT ETA BERE EMAGIÑA .....	69
LAMINZULOKO ABERASTASUNAK .....	71
LAMIEN ALKAR-IZKETA .....	73
LAMIÑEN AZKENA .....	73
KURUTZENDUN OGIA .....	74
MUNTZARAZ'ko MARI-URRAKA .....	75
LIÑUEN PENAK .....	76
ATSO ÛLE ERREA .....	78
MARI TA URREA .....	78
EZAK ETA BAIKAK .....	79
ARLETZE'ko LEZAN .....	79
ATSO ANKA AUSIA .....	80
SORGIN BARRIA .....	80
GORRITI'ko SORGIÑA .....	81
PRAKAGORRI .....	83
URREZ BETETAKO IDI NARRUA .....	83
AUZA'ko URREA .....	84
ARPEKO SANTUA .....	85
ARBEITZA'ko OSIÑA .....	85
BASAIKOAREN LOREA .....	86

## ERENSUGEA

Erregea bizi zan uriaren inguruan, leza andi bat egoan, eta leza orretan suge izugarri bat, zazpi buruko sugea, bere izenez *erensugea*.

Jente asko iruntsiten eban sugetzar onek. Egiune bat egin eban erriak erensugeagaz: urtean neskatxa bat izango ebala, beste jenteari parkatzekotan.

Zein neska erensugeari emongo jakon jakiteko, zotzetara egin eben etxeko-jaun guztiak, eta erregeren alabeari jaurri (egokitu) jakon. Erregeak, orduan, bere erreñu osoan, erensugeagandik bere alabea bizirik ateratzeko gauza zana, beragaz ezkondu eta errege-gai egingo ebala jakiñerazo eban.

Eguna eldu zanean, erregeren alabea zugatz batean lotu eben. Ikusgurea euken askok eta askok igon eben inguruetakozugatzadarretara. Battxo bat be ez zan gelditu lurrean.

Erensugea agertu baiño len, artzain bat, txakurra ondoan ebala, eldu zan toki aretara. Eta:

— Zer egiten dozu or? —itandu eutsan neska lotuari.

Eta errege-alabearen agotik ango barri jakin ebanean, zugatz-ostean jarri zan, txakurra ondoan ebala.

Bereala agertu zan erensugea, sekulako burrunbadaz. Artzaiñak, orduan, bere txakurrari:

— *Zoli*, eldu egiok (egiozu).

Eta txakurrak piztitzarrari oratu eutsan, eta zati-zati egin bera.

Bereala askatu eban artzaiñak neskatxa.

Inguruetakozugatzetan egozan errege-mutillak jatsi ta euren nagusi-erregin gaztea zazpi gonaz jantzi eben eta gizon gazte batek erensugearen zazpi buruak ebagi eta zorro andi batean etxera eroan zituan (ebazan).

Zorroan sartu orduko, artzaiñak buru bakoitzari miiña kendu eutsan, eta erregeren alabeak zituan gonai zatitxo bana be bai.

Jan-edan andi bat emon eban erregek, eztaiaurreko bazkaria. Maipuruan bera, errege, bere alabea ta alabearen senargaia egozan jesarrita. Zazpi buruak zorroan eroan zituana zan senargai au.

Erregeren inguruko iñok ez eutsan artzaiñari maikide izateko deitu. Azken aldian, eta besteen ixillik, agertu zan au be, txakurra lagun ebalako. Iru aldiz bialdu eban bere *Zoli* aspil baten billa.

Erregeren alabea, bera ikusiaz, arritu egin zan, txakurra eza-gutu ebalako. Erregek a txakurra lotzeko agindu eutsen bere mutillai. Baiña, ordurako, txakurra bere nagusiagana joana zan. Au orduan jagi eta erregeren aurrean agertuz, itz oneik esan zituan (ebazan):

—Neure txakur onek il dau erensugea. Neu naiz, beraz, erregeak agindu dauanez, bere alabeagaz ezkondu bear dodana.

Zalaparta izugarria sortu zan. Maian jesarrita egoan senargaiak erensugearen zazpi buruak aspil baten erakutsi zituan (ebazan):

—Nik garbitu dot —esanez.

—Buru orreik zerbait bear dabe —erantzun eutsan artzaiñak. Ona emen orrein zazpi miiñak, neskatxaren zazpi gonon zatietan gordeta euki dodazanak.

Bera izan zan neskatxaren senar eta erregeren suin eta ondo-rengo.

## ALOSTORREA

Deba inguruko etxe entzutetsu baten izena zan au. Eta bere jabearen izena Beltran Perez de Alos.

Birritan ezkondu zan. Lenengo emazteagandik alaba bat izan eban: ederra ta ona. Usoa eukan izena. Bigarren emazteak alaba bi emon eutsazan Beltrani. Ez eban ondo artzen Usoa bere amordeak.

Beltranek, alaba maitea atsekabe areitatik ateratzearren, senargai bat jo eban begiz arentzako. Eztegu-egunetan Beltran, Alos itxita, mairuen aurkako gerrara joan zan; eta zazpi urte luzean egon zan etxeratu barik.

Aloseratu zanean, barri txar batek mindu eutsan Beltrani biotza: sasiko seme bat jaio zala Alosen, bera kanpotik zala. Eta

bera, sasikume orren ama, bere emaztea ete zan, bere alaba Usoa ete zan...

Bigarren guzurrezko asmakizun au, Usoaren amordeak zabaldu eban.

Egia argi ta garbi jakiteko, burubide au artu eban Beltranek: bere burua iltzat egitea. Laister zabaldu zan inguruetan Alostorreko zaldunaren eriotza. Lagun asko batu zan, gaubelara.

Aldi aretan illetak joten ebezan, ez bakarrik gorpuari lurra emotean, baita gaubela bitartean be.

Beltranen lenengo alabeari bere aldia eldu jakonean, bere lekutik jagi, zerraldora urreratu, eta bere aita maiteari bekokian mun emonda gero, itz oneikaz abestu eutsan bere illetan:

Alostorrea bai, Alostorrea,  
Alostorreko eskaillera luzea!  
Alostorrean nengoanean goruetan,  
Bela Beltza *kua, kua, kua, kua* leioetan.

“Bela Beltz” sasikumearen aitag eukan ezizena, eta bera be sasikoa zan, Beltranen lengusu baten semea.

Usoak luzarago jarraitu eban illetak joten, eta bere ezpanetako herbak argi tan garbi agertu eben Alosen jaiotako sasikumea, etxeakoandrea zala.

Orduan, jagi zan au, ta, beronek ziñu eginda, bere sasi-senar Bela Beltz be bai. Eta bien artean Usoa iltzeko eukeela, Beltranek zerraldotik urten, eta ber-bertan Bela Beltzari bizia kendu eutsan.

## URTSUA'KO ERMITAN

Naparroan, Baztan'go ibarrean, Arizkun'go lurtean, Urtsua eritxon jauregi zar bat zan.

Ango jaun bat Naparroako erregeren ingurukoa zan. Beste bat Prantziako emakume bategaz ezkondu zan.

Anai abade bat eukan andra onek, eta Naparroara aundiki bategaz ezkontzera etorrela-ta, agur egitera joan jakon.

Abadeak, arrebea ama-izateko egoala igarrita, gurasoen jauregian eukitea nai eban. Eta arrebeak anai abadeari, ixiltzearen, ezpata bat agindu eutsan.

Ezkontzerakoan, emaztegaiak eundaka aariak ekarri zituan (ebazan), urrezko uztaiez orniduak.

Urtsu'ra eldu zanean, etxeakoandre zarrak, oitura zanez, ate-aurrera jatsi, eta errangaia besarkatu eban.

Ezkondu ziran, eta bereala ezagutu eban senarrak emaztea zelan egoan, eta etxeke mutil batir esan eutsan, zaldia ermita-ondoan gertu eukiteko, perrak atzekoz-aurre ezarririk.

Eta lotarakoan, senarrak esan eutsan emazteari:

—Ez al don (dozu) ikusi bear etxeke ermitea, zerbait erreztatze-ko be?

—Goazen ermitara, nai ba-dok (dozu)!

Jatsi ziran, eta sastakada bategaz, senarrak emaztea il egin eban; eta bereala zaldi gaiñean, lauankan, Prantzira iges egin.

Urtsua'n zazpi leio,  
zazpiak lerro-lerro,  
Lataia'ko alaba

Urtsua'n defunta dago.

Urtsua'n defuntua,  
Santa Ana'n aurkitua,  
Agur esan gabe  
etxetik urrindua.

Zazpi errota barri,  
zortzi jauregi zuri,  
oneik guztiok gatik be  
nik ez Urtsu'ra nai.

## TXARRI-USAIÑA

Anai bi ziran: bata abadea, bestea ezkondua.


Bein, abadea txarria ilteko zan. Txarria iltzean, adiskide ta auzokoai zerbait bialtzeko oiturea zan. Eta abadeak bere anaiari:

—Txarria il bear joat (dot), eta ikusiko dok (dozu), ez joat (dot) guztiei zatitxo bana emoteko lain eukiko.

—Ba-dakik (dakizu) zer egin bear dokan (dozun)? Il egik (egizu) gaez, eta ostu egin dauela (dautzuela), zabaldu egik (egizu).

—Ori nik!

Il eban apaizak txarria, eta berak ez ekiala, bere anaiak oso-oso ostu, ta odoloste guztiak apurka-apurka jan zituan. Azkene-ko zatia urdaillean ebala, abadetxean agertu zan, eta abadeak anaiari:



—Mutil, ik (zuk) esandako burutapen a, txarria ostutzea, norbaitek egin jok (dau), ba!

—Ik (zuk) esan ori!

—Egia dala, gizona, egia dala.

—Olan esaik (esan egizu), eta danak siñestuko joek (dabe).

Andik lasterrera, azkeneko txarrikiz gosalduta, bazkal-ordurako apaizagana joan zan anai ori. Eta orduan be txarriaren aitamena erabillega, aize usaintsu batek urten eutsan txarri-jatailleari. Eta bere anai abadeagana biurtuaz:

—Esaik (esan egizu), usmau al dok (dozu) iñoz txarri ostuaren usaiñik?

—Ez, nik!

—Ba..., gaur artzen ez ba'dok (dozu), ez dok (dozu) sekula txarri orren usaiñik artuko.

## AITA SAN ANTONIO

“Tan-tan” gizon batek bere makilleagaz, Artabe'ko atean.

—Nor da or? —etxeoandreak, barrutik.

—Aita San Antonio ta mutilla, atean gagoz zuri begira.

—Aurrera, ba!

Sartu da, Urkiola'ko sakristaua, eta bere eskuko arrana luza-tuaz:

—Non dozu ura, etxeoandre?

Arrana uraz bete, eta atzeko kortara bereala. An, arranean eukan uraz, abere guztiak bedeinkatu eta etxeoandreak itandu:

—Bai al daukazu ondoezik abereen bat?

—Bai, zoritxarrez! Orko bei gorri ori.

Artu, orduan, San Antonio'ren arrana bere ugal ta guzti, eta dindilizka ipintzen dautso gure sakristauak abere gaisoari.

—Naikoa da —esan— eta etxetik solora eroaten dau etxeoandreak gure gizona. Gizona bere arranagaz beti, eta ur-pitxarragaz etxeoandrea.

—Baratza be bai? —gizonak.

—Bai, ba... Eta arto-soloak, eta garitzak, eta sagarrak, eta bedar-landak..., danak bedeinkatu.

Urkiola'ko santutegirako limosnatxoa artu eta aurrera doa gure mutilla, urrengo etxera.

## GERENA'KO MEZEA

Orain lau gizaldi parrokirik ez egoan Gerena'n, ermitatxo bat baiño. Gizon gitxi lakoxe bat bizi zan bertan, lurrean baiño ataurrean lan geiago egiten ebana, saskigille edo zezterua.

Mutikotxo bat eukan bere ikasletzat. Beste bizilagun barik, eleizatik urruntxo dagoan etxe baten emoten ebazan bere ordu ta gau-egunak.

Igandea noz zan bere lantegiko saskietan izaten eban ezagun. Egunean bat bakarrik egiten eban. Sei eukazanean, urrengo eguna, jakiña! igandea zan, meza-eguna.

Baiña, mezarik, meza oso ta benetakorik, noz arek entzun? San Adrian-egunean izan ezik, ez zan abaderik agertzen, mezarik emotera beintzat.

Saskigillea bera izaten zan auzokoai mezea zelanbait entzun eragiten eutsena. Liburu bat eukan, orretarako, berak. Axe zabaldu, eta zerbait irakurri ta gero *Aita Gurea* eta *Agur Maria* batzuk, alkarren artean esan, eta kitu, urrengo jai-egunerarte.

Bein, bere mutiko saskigillegaiak, ugazabari esatea aitzuta, saskiren bat saldu eban. Larunbata eldu zanean, host saski baiño ikusi ez eta, urrengo eguna asteguna zalakoan, seigarrena egiten, *taunk* eta *taunk* asi zan gizona. Amarrak aurretzoan, ermitako txiliñak, *dinbi-danba*, mezatara deika.

—Igandea ete joagu (dogu)? Igandea ba'dok (da), galdua nok (naz).

—Ba-najoiak (noa), bada ezpada —esan, eta bere liburu aundia besapean ebala, eleiz aldera abia zan.

Erreka ondora eldu zanean, txakur aundi batek zaungaka urten eutsan. Ezin pizti a bestetara uxatu, eta *braust!* liburuja jaurti eutsan, eta ez jakon, ba, errekarra jausi ta ondoratu?

Liburu barik, esku utsean, joan bear izan eban eleizara. Ezin kendu ban burutik, axe txakurtzarra deabrua izan ez ete zan.

—Gizonak, igandea al dogu gaur? Ez nekian mutillak. Ez daukagu, gaur, mezarik.

—Zergaitik ez, ba?

—Onaxe nentorrela, parte txarreko txakurtzar batek urten daust, eta berari muzturretara jaurti bear izan dautsat neure liburu.

—Ez dogu, orduan, ezer?

—Bai, Zenarrutza'n entzundako sermoi bat egingo dautsuet, nire meza batek beste balio dauana.



Zar eta gazte, praka eta gonadun, barrura sartu, eta eleiza-txoa erdi bete ebenean, gure saskigille ori pulpitora igon ta kurutze santuaren praille zar batek lez, austiro eginda, itz bi, bi bakar-bakarrrik esan ebazan, sermoi guztian:

—“Enakutsu, banakutsu”.

“Enakutsu” esanda, pulpitopean ostontzen eban bere burua. Eta “banakutsu” esaeran, barriri agertu. “Enakutsu, banakutsu”-ka..., luzaro egin eutsan Gerena’ko saskigilleak.

## ELTZABURU’KO ERRENA

Erronkal’eko artzaiñak udea Auñamendi’ko mendietan igarotzen dabe; eta negua Bardenetako zelaietan.

Negu gorriko gau luzeetan, sarri txabola bakoitzean, artzain batzuk batu, eta kontu-kontari emoten dabez ordu luzeak supazte-rean.

Alako gau baten, naiko ipuin esanda, lotarako jagi ziran danak. Ixildu nai ez batzuk, eta artzain nagusiak esan eutsen:

—Deabruak eroan zagiezala, ixiltzen ez ba zare.

—Deabruak eroaten ba gaituk (gauz), danok lokaztuko gozak (gara). Eta au ez jatak (jat) bat be atsegin —erantzun eutsan batek.

—Eta zergaitik lokaztu?

—Inpernua buztifñezkoa dalako.

—Zelan dakik (dakizu) ori?

—Eltzaburu’ko errenak ikusi joan (eban).

—Errena izan bear, bai, ori esateko. Etxoat (ez dot) siñesten. Ez dok (da) andik iñor etorri!

—Erren au, txori ona bera, etorri zoan (zan) ba.

—Ipuiñak!

—Dana dala, erren au il, eta deabruak artuta inpernura bota juen (eben). Gizon onek, anka bat aragizkoa eta bestea burdiñezkoa jaukan (eukan). Eta an, batetik bestera ibilkeran, inpernua zulatzen ei joan (eban), bere burdiñezko anka orregaz. Orrenbesteko triskantzea ikustean, deabru guztiak batu, eta gizon ori inpernutik kanpora bialtzeko erabagia artu juen (eben).

—Ezin leitekek (leiteke izan) ori.

—Alan ba dok (da)-ezpa dok (da)..., nik alan entzun naioan (neban) bai, eta or konpon, Mari Anton.

## ARDAOARI EZIN ITZI

Santotomasetan, etxe eta lur-jabeari urteko orrentea emon bear izaten jako; eta estu egoten dira egun orreitan maistarrak.

Santotomas batzuetan, estutasun onetantxe egozala, dirua aurreratzen asi bear ebela, gogotan sartu jaken olagizon batzuri.

Orretarako, ardaoari iztea bear bearrekoa zala ta urzale izatea erabagi eben. Ardaoa lenengo aitatzen ebanak artoa bat baba eukan multa.

Bein baten, oi ebenez, eguerdian babak jaten eragoioela olagizonok, euretariko batek, ieleak (laminador) ardao barik ezin eban jan. Eta edateko eukan gogoa zelanbait esan nai, eta ardao izena aitatu gura ez... Eta onetara agertu eban bere guraria:

—A, mutillak! Onangoa alangoagaz ez geunkek (geunke) txarra ba!

Eta maixuak, gero:

—Onangoa alangoagaz? Doala gatzemoillea zatoagaz.

Andik aurrera, ardaoari jarraitu eutsen, eta dirurik barik joaten ziran, Santotomasetan, etxera.

## GERNIKA’KO BATZAR BATEN

Gernika’ko Batzar-Etxea aldenez bete-beterik egoan. Eta idazkariak, oi ebanez, guztiak entzuteko eran Mundaka lenengo aitatuaz, aldunai banan-banan dei egiten asi zan, bakoitzak bere ezaugarria maipurukoai erakusteko.

Mendexa aitatu ebanean, Mendexa’ko ordezkaria (Oingo alkatea) mai-aurrera agertu zan.

—Ea papelok, Mendexa!

Kolkotik, bere aldun-izena ateraten ebilan bitartean, artozati bat eta iru sagar gazamin jausi jakozan aldunari lurrera. Gorputzari zirkiñik ez arpegiari ziñurik eragin barik, esan eban berak:

—Emen da Maria gureak

niri gerturiko gosaria:

Iru sagar gazamin ta arto-zatia.

Barre-zantzoka asi ziran bertako guztiak. Lenengo batzarraldia amaitu zanean, askok jarraitu eutsen gure aldunari ostatutzat artu eban ardantegira. Eta euren arteko batek:

—Mendexa, azken egunean zuk emongo dautsazu ostatariari eskupekoa!

—Bakoitzak al dauana emongo dau.

—Mendexa —beste batek— Bilbo'n gatzari arrak egiten ei jakoz, zuk ba ei dakizu zegaz kendu leikiozan.

—Orixe bai. Guk mandaemearen esneaz, uraz soiñekoen loi-uneak lez, galtzen doguz gatz-arrok.

—Mendexa —irugarrenak— zuen errian ez al dago zu baiño burutsuagotik?

—Bai eta ez gitxi. Arek, barriz, beste arazo aundiago batzuetara zuzendu oi dabez. Zuekana neu, nazantxo au, bialdu nabe.

Au entzunda, bat baiño geiago gelditu ziran baserritar aldunari lotsa geitxoagoaz begira.

Azken egunean, gure Mendexar au ostatariagana ixillean joanda, itz oneik esan eutsazan:

—Ekatzu amaseiko bat, zeuretzako mesedean izango da-ta.

Bazkal-ostean kontua eskatu eutsanean, aldun asko zuur egozan, adi-adi, Mendexa'k zenbat emoten eban jakin gurarik.

Etxekoandreak kontua erakutsi eutsanean, dana zeatz ordainduta gero, katanarrutik amaseiko urre gorri ederra aterata, mailgaiñean ots zolia eragiñaz:

—Ona emen nire eskupekoa —esan eban. Gizon jakitun aberats apainduok geiago emongo dautsue. Ni geiagora ez naz eltzen.

Batzuk, lotsarren-edo, ontzako bana emon ei eben eskupekotzat.

## IRU-EGIA

Aramaio'ko Gatzaga'n, beste errietan lez, gauero batzen ziran auzoko neska-mutillak, etxeetan, arto-zuriketan; gaur, etxe baten, biar, bestean.

Lan egin bitartean, kantaka ta ipuinka eragoioen guztiok. Eta gaztaiña erreaz ordaintzen eutsen etxeakoandreak.

Gau baten, bigiratik (tertuliatik) urtenda, argi bat ikusi eben basoan. Bat bera ikusita, ikaraz dar-dar asi zan. Eta besteak barre

egiten eutsoen ikaratiari. Eta onek minduta esan eutsen besteai:

—Gura dozue, zuetariko adoretuena araiñoxe ezetz joan?

Baietz eta baietz. Ogerleko bat jokatu eben

Mutil sendokote bat zan ara joatekoa. Eldu zan ala ez zan eldu, siñestu eragiteko, angoxe zugatz baten adarra ekarri bear eban.

Mutil ausartu ori, argi-aldera urreratu zanean, txakurtzar ikaragarri batek bidera urtenda:

—Nora oa (zoaz), mutil —zaunkaka itandu eutsan.

—Tema bat egin dogu.

—Zein tema?

—Argi orixe dagoan lekura eldu baietz. Eldu nazanen siñesgarritzat zugatz adar bat eroan bear dot.

—Adar ori eroan dagikek (daikezu). Baiña lenago, iru egi esan bear daustazak (daustazuz).

Eta mutillak, naiko larri ta estu:

—Ona emen iru egia. Lenengoa: gaurik argiena baiño, egunik illunena argiogo da.

—Bat.

Bigarrena: norberaren ama txarra, amorderik onena baiño obea da.

—Bi.

Irugarrena: ogeita lau urte jaukazat (daukadaz), eta iñoz etxoat (ez dot) i (zu) baiño txakur aundiagorik ikusi.

—Iru. Igoik (egon egizu) orain neure lepora, eta gorengo adar-kimatxo bat artu.

Eta adar-kimatxoagaz, lurrera jatsi zanean, itz oneik esan eutsazan txakurtzarrak:

—Beste bein, ez egik (egizu) olako temarik egin. Eguna egune-koentzat dok (da) eta gaua gauekoentzat.

Argia, arto-zuritzailleak urriñetik ikusi eben argia, txakurtzarren ao-sabaian dingilizka egoan.

Mutil ori etxera joan..., ogean sartu... eta ez zan iñoz jagi.

## KUKUBEL

Umezurtza zan Kukubel, artzaiña, ta neska ona gaiñera; musika-zale utsa.

Zii, arte ta ezpelezko soiñukiak egiten benetan trebea zan bera! Ak egindako zinzurrun, txistu, txilibitu ta txirulak, amaika txori pozez kantari jarri ta zoratu ebezan.

Ardiakaz larra ta bedartzetan ebillan artean, eleizaren bateko txiliñak joten eban bakoitzean, ez eban itxiko Agur Mari bat esan barik.

Bein, bere errezu-ostean, Andra Maria agertu jakon, eta mai-tekiro itz oneik esan:

—Neskato, zer nai dozu saritzat?

—Nik txilibitu bat nai neuke..., entzun nagianari dantzan eragiteko txilibitua.

Berealaxe sortu jakon txilibitu ori eskuetan. Ası zan Kukubel, pozarren, txilibitua jo ta jo, eta... ardi ta bildotsak, txistua entzunda, *triska* ta *triska* dantzan ebiltzan.

Egun atantxe, beste askotan lez, abade eiztaria inguru aretara etorri zan, eta sasi-artean egoan ostenduta, erbia noz etorriko.

Eta Kukubel, zer jazoko zan burutan artu barik, bere txilibitu barria joten asi zan. Eta elizgizona *triska* ta *triska* dantza ibilli zan sasitzako lar zorrotzak soiñeko ta aragiak urratu arte.

Aren asarrea, txilibitua ixildu zanean! Gaua gaiñera etorri baiño lenago:

—Kukubel sorgiña da, eta urkamendira eroan bear da —esanik, errikoak artu ta loturik euki eben.

Biamamonean, urkamendira eroela, erri guztia bere inguruan joian. Onetan Kukubel'ek mesede bat eskatu eutsen: il bear ba'eben be, eskuak askatu egioezala, odol barik eta indarga eukazala-ta.

Eta abadeak aren eskuak jare (askatuta) ikusi ebazanean:

—Gizonak, bada-ezpada, lotu nagizue ni, gabi-ardatz orreri.

Abadea lotu ebeneko, Kukubel'ek, arako txilibitua gona-azpitik atarata, txiruli-txiruli jo ta jo iñarduan.

Bere soiñu ezti ta gozoa entzunda, erri guztia dantzan asi zan.

Abadea bera lotuta egon arren, *taunka* ta *taunka* ebillan, eta barrearen-barrez ito bearrean.

Kukubel'ek, soiñu luze ezti amaitu ebaneko, deslai ta libre itzi eben. Eta basora joan zan barrero, bere ardien billa.

Eta an bizi zan luzaro bera, beti *txiruli-txiruli*; eta ardiak *triska* ta *triska* beti.



## LEDEA'KO ZUBIAN

Antxiña baten, Abderraman, Cordoba'ko agintariak, Prantzia'tik osterea eginda etorrela, Naparroa-zear igaro bear eban.

Naparren erregek au jakiñik, mandatari batzuk bialdu ebazan Erronkari, Saraitzu ta Aezkoa'ko ibarretara, Abderraman eta bere gudariak arpegi-emotera urten egiela aginduaz.

Berealaxe urten euren ibarretatik mugako mendi aldera Erronkari'ko eta Saraitzu'ko mutillak. Eta Aetzak erregeren madatariak auxe esan eutsen:

—Zuen eta gure Jaun eta agintariari esan: gure etxe, solo eta abereak gordetzeko, geure ibarrean egon bear dogula.

Abderraman bere gudariak Ledea'ko zubira eldu zanean, Erronkari eta Saraitzukoak zati-zati egin ebezan euren etsai baltzeranak (mairuak) eta onein negusia Abderraman zubi aretan bertan il eben.

Saraitzuarrak eroan eben aren burua. Saraitzuarren atzean Erronkariarrak ixil-mixilka ibilli ta Abderraman'en buruari miiña ebagi eutsen, iñor be oartu ez zala.

Iruña'ko erregeren aurrera eldu ziranean, Saraitzuarrak, pozik eta arrorik, jakiñerazo eben, eurak, Saraitzuarrak izan zirala mairuen errege il ebenak.

Erronkariarrak, orduan, euren eskuz egindakoa zala egite aundi ori agertu eben, eta Abderraman'en miiña erakutsi eben siñesgarritzat.

Eta erregek bere poza ta esker ona, batzuri ta besteai agertzeko, iru ibar areintzat iru arma-arri barri egiñazo ebazan.

Saraitzuarrai otso bat emon eutsen, agoan bildots bat ebala, armarritzat. Azeri bat Erronkariarrai, euren maltzurkeriaren ezaugarri. Eta Aetzai, euren alperkeriaren ezaugarritzat-edo, basurde bat arte baten azpian etzunda.

## EREÑOZAR

Gernika ondoko Ereñozar mendi tontorrean, San Migel'en ermitatxo bat dago. Eta arako bidean, goi-aldean, aska aundi batzuk agiri dira, arri tartean. San Migel'en oiñen askak ei dira.



Ona emen, zelan jazo zan ori, erriaren asmakizunaren ustez: Ereñozarreko lau orma barruetan bertan ei eukan San Migel'ek deabrua katepean lotuta.

Eta orduan garbitu ei zituan ermitatxoaren zaindariak, ango inguru guztietan deabruak egindako ainbeste gaiztakeri.

Baiña, deabru ori naiko oker eta biurria izan, eta bein, San Migel'ek norbaitegaz izketan eragoion bitartean, kateak apurtu eta leiotik iges egiñaz, mendiz beera asi zan ariñeketan.

San Migel konturatu zan orduko, mendi erdi baiño geiago jana eukan, bere apatxurtikan, deabru orrek.

Orduan San Migel'ek be urten, eta bi edo iru oinkada emon ordukoxe, oratuta eukan deabrua.

Belarritik lotu eta lengo txokora ekarri eban, barriro.

Eta an gelditu ziran, betiko, atx-zulo areitan, goi-aingeruak emondako pausoen aska aundiak.

## LAKUNTZARREN ERIZPENA

Bein baten, Lakuntzar bi auzitan ebiltzala, Iruña'ra joan ziran erizpen billa.

Batak eta besteak, bakoitza bere aldetik, legegizon berberagana jo eban.

—Abogadu jauna: zeure eritzia emon bear daustazu.

—Ondo dago. Zertzaz baiña?

—Ez al zara abogadua? Zeuk dakizu ondoen.

Abogaduak, irribarrez, papeltxo baten, itz batzuk emon eutsazan.

—Zenbat da zure nekea?

—Ogerleko bat.

Papel ori artuta, gizon onek Lakuntza'ra eldu zanakoxe, alkateari deitu, ta:

—Alkate jauna: Batzar bat eratu bear dozu biar, meza ostein, orretarako etxejaun guztiai dei egiñez.

—Zertarako?

—An ikusiko dozu.

Lakuntza guztia batu zan eleizpean, meza ostein.

—Emen dira guztiak?

—Bai emen dituk (dira).

Besteak papel baliotsu ori emon eutsan alkateari.

—Emen etxagok (ez dago) ezer. Onetarako batu al gozak (gozuz) —alkateak gizon ari ixillean.

Erri guztia tarrapatata asi zan orduan, oiñakaz beea jotzen. Danak entzun gura eben Iruña'tik ekarritako eritxi ori. Eta alkateak danak entzuteko eran:

—Gizonak, ona papel onek diñoan guztia: "Gaur egitekoa, biarko ez itzi".

Irriz eta barrez asi ziran geienak:

—Ori? Gure amamak be esaten joan (eban). Bai amaika bidar!

—Gaur egin leikena —esan eban beste batek—. Lakuntza'n egin leiteken bakarra, liño kontua dok (da): liñoak errekan sartu edo liñoak errekatik atera, gero legortu, eta etxean jo al izateko. Gaur uretan jaukaguz (daukaguz). Bakoitzak ikusi dagiala, noz atera bear dituan.

—Nik —iñoan papeldunak— gauganik atera neikez liñoak.

—ik (zuk) nai dokana (dozuna) egik (egizu). Guk bere egunean aterako joaguz (doguz).

Eritxi-papelduna joan eta, errekatik laster atera zituan bere liñoak.

Trumoi-ekaitz izugarria izan zan gau atan. Euria ibaika jausita, errekek azi eta liño guztiak eroan ebazan.

Biaramon goizen, papela eskuan ebala, goizetik jatsi zan kale-  
ra, eta onelan oi ugin eban, bein eta barriro:

—Ogerleko bat emonda, lortu dot nik eritxi au. Ez neuke ontzako batean be emongo.

## ARTZAIN BILDURBAKOA

Etxegarate mendian, Ataun aldean, Galardi izeneko basotxabola baten, mutil zar bat egoten zan ardi-zain. Bein Ataun'go iru abade gazte, ikaratu bear ebela-ta, araxe basora, Galardi'ra, zuriz jantzita joan ziran. Irurak zugatz gaiñean egozala, oi u triste batzuk egin ebezan.

Orduan, mutil zarra txabolatik urten eta agertu zan:

—Etxoizue, mutillak —esan eutsen—. Zer ekarri dozue?

—Meza bana eskiñita jaukagu (daukagu), eta aren paltan purgatorioan gagozak (gagoz).



—Etxoizue, barriro artzaiñak, etxoizue, babak jan bear joataz (dodaz)-eta. Txabolara joan zan, eta andik laster agertu zanean:

—Mutillak dirurik ba dozue?

—Purgatorioan urte askotan gagozala, guk zelan dirua euki?

—Dirurik ez ba'daukazue, alperrik zabiltze. Gure errian iru abade gazte dagoz, diru barik golperik jo gura ez dabenak. Abade orreik iru demoiniño dirala, iruditzen jat. Alperrik ibilliko zare; zuen denpora guztian or purgatorioan egon bearko dozue.

## GETARIA'KO ORIOA

Gizon bat orio saltzen Getaria'tik Donosti'ra joiala, bidean egarrituta, tabernara, barrua bustitzera sartu zan.

Edan bitartean, asto orioz zamatua ate-ondoan eukan, burdiñezko uztaixto bati lotuta.

Ordu laurengarreanean, bidean asi zan barriro, len biaoño berotxoago.

Bizkorrago ibiltzeko, bizkar gaiñeko burrusa soiñetik erantzita, astoari gaiñean jarri eutsan. Eta noizean bein:

—Arre, astoa —esanda, aurrera ta aurrera joian.

Aldatz-gora joiala burrus bat aurkitu eban eta:

—Orain burrus bi —esanaz, astoari jarri eutsan au be.

Barriro beste burrus bat lurretik jasota astoari jarri eutsan: orain iru burrus —esanaz.

Amar aldiz, beste onenbeste jazo jakon. Zubi bat igarotean, burrusa lurretik jazo ta ibaira jaurti eban, itzok esanaz:

—Zertarako joazat (dodaz) nik onenbeste burrus?

Eta burrusik barik sartu zan Donosti'n orio saltzaillea.

Bat izan zan, bakar bat, ainbeste aldiz asto gaiñetik jauzi zana.

## KOIKE-IGURTZAILLEA

Mairuak eta kristauak alkar iltzen ibiltzen ziran aldietan, sorgin batek mairuen aldea artu eban.

Araba'ko, nai zelai nai mendi-artean, eudaka mairu ilda egon arren, urrengo goizerako guztiak biztu ta barriro kristauen aurka jagiten ziran.

Alako gauetan, sorgin bat, lapiko aundi bat koipez ondo betea kaltzarpean ebala, zelai areitan gizonik gizon ibiltzen zan, eta atzamar bi lapikoan sartu, eta illen zauriak igurtzi, eta beste barik, jagi oi ziran mairuak.

Iñork ez eukan igurtzaille onen barririk:

Bein Zaukulandan, sekulako triskantza aundia egin eben gutarrak mairuen artean. Baiña, beste garaitza batzuen antzera, au be alperrekoa izango zala uste eben. Onetan, mutil gazte bular-tsu bat sartu zan nagusien artera, eta:

—Gizonak, zuok lo zagozen bitartean, neu egongo nok (naz) Zaukulandan itxarrik, eta neure kontura illok barriro iltea.

Gaberdi inguruan, atso ulezuri bat agertu zan bere lapiko ta guzti. Lenengo aurkitu eban mairu illaren aurrean makurtu eta lapikoan atzamar biak sartu, eta bere koipe aregaz igurtzita, bat-batean biztu zan ildako mairua.

Gure mutillak au ikusita, ixil-ixillik atzetik joan eta *sast* eta *sast* jo bata jo bestea: biak, miarua ta sorgiña, illik itzi zituan bertan.

Eta atsoaren ondoan lapikotzarra ikusita, aren bidez illak biztutzen ete zituan jakin gurarik, bere atzamar biak sartu eta zauriak igurtzi eutsazan atsoari. Eta atsoa, zutunik!

Orduan, artu mutillak, ezpatea, eta atsoa izketan:

—Ez nagik (nagizu) il, mutil, ez nagik (nagizu) il. Bizirik izten ba'nok (nozu), koipe ori zegaz eta zelan egiten dan erakutsiko dauat (dautut).

Mutillak, ez-entzun eginda, ezpataz barriro joaz, ankaz gora bota eban sargiña, eta arnasa barik eta arima barik itzi.

Gero, bereen artera barriro; eta bere lagunai gauekoa azaldu, eta oneik siñestu nai ez.

—Ezetz?... Ezetz...? Il neu zeuok. Igurtzi gero ondo lapikoko bazi orregaz. Egin, arren, egin...

Ainbeste bidar esan eban eta, berari atsegin emotearren, egin eben gazteak agindutakoa... Sastada batez il ba'zan, beste igurtzi batez biztu zan.

Gero, Zaukulandan ilda egozan kristau-mutillak, eguna zabaldu orduko, sorgiñaren koipez igurtzi, eta bertan biztuta, bizkor-bizkor jagi ziran guztiak.

Ori olan ba'zan, sartu dedilla kalabazan!

## KAXARRANKA

Kaxarranka Lekeitio'ko arrantzaleen aspaldiko dantza berezi bat da.

San Pedro egunean, Bezperak abestu ondoren, erriko itxasgizonak, euren ondasun-zain zar eta barriagaz batera, ondasun-zain zarrenaren etxera joaten ziran, euren dantzari, danbolin eta erriko ikurriñagaz.

Aren etxetik arrantzaleen anaidi edo kofradiko kutxa atera, eta zortzi morroskok sorbaldetan artzen eben. Eta kutxa gaiñean beste morrosko dantzari bat.

Morrosko onek San Pedro izena eukan. Eta beste morrosko bi eriozian bere alboetan, oiñez. Eta onein izenak: San Juan eta San Andres.

Santuen jantziz jantzita joaten ziran: buruan turrua (mitra) eta koroia, arpegian mozorroa, eta soiñean abadeen meza emoteko soiñeko zabal-luzeak. Onezaz gaiñera, San Pedro'k urrezko giltza erorian eskuan.

Ibillaldian, batzuk zaldi-gaiñetan joiazan eta beste batzuk su-iskulluz dunbadak jaurtitzen. Eta dantzariak ezpata-dantza dantzatuaz.

Iru dantzaldi egiten ditu kutxa gaiñeko dantzariak: ondasun-zain zarraren etxean, ondasun-zain barriaren etxe aurrean, eta eleiz-aurrean azkenengoa.

Amazazpigarren gizaldian auzi luze bat izan eben dantzariak eta Kalahorra'ko gotzain jaunak. Oitura txarra zala ta kendu gurarik gotzaiña. Oitura ona ta oso zarra zala-ta, zaindu naian arrantzaleak.

Jarraitzen dau oraindik oitura orrek, zertxoren bat aldatuta ba-da be.

Orain, San Pedro bakarrik doa ibillaldian, ez bizirik, irudian baiño.

Eta kutxa gaiñeko dantzariak, praka zuriak ditu soiñean, garriko gorria ta txamarra baltza.

## DOMINISTIKUN

Senar-emazte batzuk ez euken seme-alabarik, eta egunero eskatzen eutsen Jaungoikoari.

Egunak joan eta egunak etorri, urteak joan urteak etorri, eta ez eben ezer lortu.

Deabrua agertu jaken egun baten eta esan:

—Zuok eukiko dozuen umea neuretzat izango dala itza emoten ba'daustazue, laster emongo dautsuet zuok eske ta eske zagozen ume ori.

Eta besteak, baietz!

Aldiaren buruan, sortu zan ume ori. Eta aita-ama barriak, aren bateoko egunean, jai aundi bat egitea erabagi eben.

Orretarako aari eder bat ekarri eben etxera, biaramonean il eta jateko.

Auzoko batek, jai ori egiteko aari eder bat etxe aretara eroan ebela jakin, eta gabaz, ixil-ixillik, ara joan zan, a lapurtzeko asmotan.

Etxean sartu ta deabrua aurkitu eban bertan, umearen ari-mearen eske joanda. Eta deabruak lapurrari:

—Geldi..., lan aundi bat egiteko gogoa jaukat (daukat), ik (zuk) ez esan iñori. Umejaiobarri onek iru bidar usin egingo jok (dau), eta iñork "Doministikun" esaten ez ba'jautsak (dautso), umea il, eta bere arimea inpernura eroango joat (dot).

Andik laster, umetxo orrek usin egin eban. Eta ez eutsan iñork ezer be esan. Gerotxoago, barrero be usin, eta lapurrak, iñork ezer ez ebala esaten oartzean, pentsau eban beretzat:

—Ume, ume errukarria! Eta deabruak inpernura eroan nai auala (zaituala)...! Ez orixe, ez!

Eta aoa zabalduaz, esan eban bere indar guztiakaz: "Doministikun", aaririk ostuko ez ba'joat (dot) be.

Deabrua..., iges; eta goikoak bera etorri ziran, an nor ete ebilan ikusten.

Gizon aari-zalea aurkitu eben an, kikilduta. Eta jazotako guttia aregandik jakin ebenean, gurasoak pozik emon eutsen aaria gizonari.

Eta ortik ei dator, umetxoak usin egitean, "Doministikun" esateko oitura ori.

## LAKUNTZA'KO GALDAREA

Burunda'koak letaiñi-egunean Aralar mendira, San Migel'en eleizara joaten dira, urtero.

Eleizako zeregiñak beteta, erri bakoitzak toki bat aukeratzen dau, bazkaria gertatzeko: erri batekoak emen, besteakoak or.

Lakuntzarrak atx-balda baten ertza euken orretarako.

Eta an jarri eben galdara aundi bat odolostez beteta, egur gaiñean. Egurrak sutan zirala, eta areitariko bat erre zanean, galdarea atx-baldatik jausi, eta, bilin-balaunka, or joan zan atxak beera ta mendiak beera, beko Sakana'raiño.

Au ikusi ebenean, Lakuntzarrak esan eben:

—Galdareak umeak egingo ba'ditu be, odolosteari eutsi!

Ordutik Naparroa osoan, agopean bata besteari, itanduten dautse:

—Zer egin eban Lakuntzarren galdareak?

## JENTILLA TA KRISTAUA

Bein baten, jentilbaratzen jentil indartsu bat bizi ei zan, beste jentil guztiak menpean eukazana. Bere astia Jentilbaratzetik Leizaidi'ra, eta Leizaidi'tik Jentilbaratzera emoten ei eban.

Alango baten, kristauen artera joatea bururatu jakon, ia an berari burrukan egiteko gizonik ere zan.

Joan ei zan Lazkau aldera, eta bidean amalau urteko mutiko bat aurkitu ei eban:

—I (zu)..., gizona az i (zara zu)?

—Oraindiñc ez, gaztetxoa naz-ta.

Lazkau'tik beera, Senpe aldera joiala, gizon zar bat aurkitu eban:

—I (zu)..., gizona az i (zara zu)?

Urteetan aurrera joantxoa naiago (nago) ni. Beasain'go olan aurkituko dozak (dozuz) gizon-gizonak.

Bai eta gentil ori Beasain'go olara joan, eta an be gizonik ete zan itandu.

Kristau errementari batek urten eutsan. Eta jentillak:

—Nire ukabilla biurtzeko dan gizonik ba'dok (da), urten dagiala.





—Bai...! Itxaroik apur baten, nik atzamar bigaz eldu bitartean. Eta alan sutan goritutako kirrikaz (tenaza) surretik eldu jentillari, eta surra moztu ei eutsan.

Jentil ori karrazika, Jentilbaratzera. Eta bere lagunak:

—Zer egin daue (dautzuè)?

—Arte gaiztoak jaukezak (daukez) kristauak.

Eta ordutik jentillak kristauai bildurra artu ei eutsen.

## ARGIDUNA

Zulobia'ko jauna ilda, urrengo egunean, Lapurdi'ko Sara'n argi bat ikusten zan etxe aren gaiñean eta Mendiondo'ko iturrian. Ildakoaren arimea ete zan edo, artega egozan Zulobia'n.

Egun bat joan, bestea etorri, ta bardin argi ori teillatuaren gaiñean. Gau baten bertako etxeakoandreak, adorea artu ta itandu eutsan:

—Parte txarrekoa ba az (zara), alde egik (egizu), eta parte onekoa ba az (zara), esan.

—Parte onekoa non (naz).

—Nor az (zara), ba?

—Ire (zure) senar izandako Pello.

—Eta zer nai dok (dozu)?

—Mundu onetan bizi nintzala, meza batzuk atera barik itzi niñoazan (nebazan). Atera egizan (egizuz) eta salbauko non (naz).

—Aterako joazat (dodaz); zenbat meza zoazan (ziran) ba?

—Bost!

—Tirok (tira), ba...

Atera ei eutsazan bost meza orreik, Zulobia'ko etxeakoandreak, eta ez ei zan geiago argi ori agertu.

## ILLEN ARGIAK

Beraztegi'n batzuk siñesten dabe, norbait ilten danean, bere arimea zerura bidean ondo ibilliko ba'da, argia bear dauala.

Orretarako iñor ilten danean, sendi beartsuenetakoa ba'da be,

argi asko biztutzen dautsez eleizan, orretarako sendi bakoitzari izentautako jarleku edo illobian.

Gaur ez dabe askok onako gauzarik siñesten; eta argia Jaunari bakarrik eskintzen dautsoe.

Orain urte bi dirala eleizako parrokoak bi edo iru argi bakarrik biztuteko, agindu eban, bestela eleizako ormak keaz baltzitu egiten zirala-ta. Ez eban, baiña, jendeak parrokoaren agindua ontzat artu. Emakumeak, batez be, asarratu ziran euren illen arimak argi barik itzi bear ebezalako.

Egun areitan, emakume bategaz berbetan nengoan, eta asarre samar egoala-ta, auxe itandu neutsan:

—Baiña, andrea..., illen arimak zerura joateko argirik bear dabela, siñesten al dozu?

—Bai..., bear ez ba'lebe ez geunskioez jarriko. Ara, orain asko ez dala, Somorrostro'ko meatz-zulo baten, lurrak mea-gizon mordo bat azpian artu eban. Mea-gizon oneitako baten amak eleizan egu-nero argia biztutzen eban; egun bat bakarrik itzi ei eban biztu barik. Egun batzuk igarota, mea-gizon a bizirik atera ei eben lurpetik, eta esan ei eban:

—Egun baten bakarrik egon nok (naz) jana, edana ta argirik barik.

—Zein egun zoan (zan), egun ori?

—Arañegun.

—Aiko!, egun orretantxe bakarrik itzi naioan (neban) neure jarlekua argi barik.

## BASERRIA

Bakar eta banan bizi izateko oiturea dabe euskaldunak. Orre-gaitik "baserria" da euskaldunen benetako etxea.

Ibar bateko baserriak auzo bat osotzen dabe. Eta auzook alkar laguntzeko lege batzuk dabez. Legeok auzo-lana eskatzen dabe: artazuriketa, gorulanak eta ibarreko bide eta zubiak alkarren artean egin bearra.

Orrezaz gaiñera, etxe bakoitzeko jai eta gora-berak be alkarregaz bizi ta ospatzen dabez: jaiotzak, ezteguak, illetak...

Zumarraga'ko lenengo etxea Eguzkitza izan ei zan; eta Iriaun, Bergara'koa. Bi edo iru orduko bidea dago baserri bion artean.

Alan ta guztiz be, Iriaun'go etxeko jaunak esan ei eban:

—Urrintxo, urrintxo alkarregandik, auzoak ondo izateko.

Dorre-etxeak ziran baserri bi oneik. Bardin dagoz beste eus-kalerriko dorre-etxeak be, esakun orrek diñoanez, alkarregandik urrintxo.

Oillar bakarra bear, antza, oillategi bakoitzean.

## MUGARRIAK

Mugarriak era bitakoak dira. Batzuk, baserrien arteko lurrak banatzeko sartzen diranak; eta besteak, errien arteko mugak izentatzekoak.

Baserri arteko mugarriak, ikatz eta teilla-zatiak eukitzen ditu bere azpian. Bere etxeko jabearen ezaugarriak. Erriarenak, osteria ez dauke olako ezer.

Len, Sanmarkosetan, erregatibak egiten ziran bitartean, erriko mugak ikusteko oiturea zan. Esan bearra dago, olango mugarri asko, antxiñako jentil-arri ertzetan eta bidekurutzeetan eregita ikusten dirala.

Mugarriak aldatzea, oso txarto ikusia zan euskaldunen artean, eta pekatu astuntzat artua.

Ataun aldean esaten da, napar-artzain batek Irumugaeta'ko mugarria bere lekutik aldatu egin ebala. Eta ilda gero, gabero-gabero, bazterretan oiuka ei ebillan:

—Irumugaeta'ko mugarria, nire animaren galgarria. Non sartu, non sartu?

—Sartu egik (egizu), lengo lekuan —erantzun ei eutsan beste artzain batek.

Eta ez ei zan geiago ildakoaren txitik entzun.

## MUGARRIEN AUZIAK

Eztabaida asko sortu izan oi dira errien artean, euren mugak dirala ta ez dirala. Ona zelan azaltzen dabezan erri batzuk, euren mugen gora-berak. Emen Leiza eta Goizueta koentzat esaten dana, beste erri batzuetan be bardintsu esaten da. Ona emen Leiza eta Goizueta'ko ipuin zar au:

Erri bi onein arteko mugak jarri bear ebezalata, erabagi au artu eben, orretarako.

Goizeko seiretan, erri bakoitzetik neskattilla batek urtengo eban beste errirantza. Eta biak alkar egiten eben lekuan, antxe jarriko ebezala erri bien arteko mugarriak.

Leiza'koa berealaxe asi zan lasterka, joan, joan, eta joan...

Goizueta'koa, ostera, bere ule mototsak orraztutzen gelditu zan luzaro, eta geroago abiau.

Leiza'koa urriñago eldu, jakiña, eta orregaitik, erri bien arteko mugarriak, Goizueta'tik askozaz be urrago dagoz.

Beste ipuin zar au esaten da Otxandio'n, mugarriari buruz:

Otxandio eta Aramaio-ko gizonak batu ei ziran, bein, euren errietako mugarriak ezartzeko.

Eta erabagi au artu, orretarako:

Oillarrak joaz bat-batera, gizon batek urtengo dau Aramaio'tik eta beste batek Otxandio'tik. Eta biak alkartzen diran lekuan jarriko da mugarri barria.

Aramaio'ko korrikalariak zuzi bat artu eta oillategian sartuaz, oillarraren aurrean jarri eban. Eta bereala egin eban kukurruko bertako oillarrak, egunsentia zalakoan. Baita, une atan bertan mutil ori ariñeketan asi.

Otxandio ondoan egoan egunsentirako; eta an aurkitu eban Otxandio'ko mutilla, ariñeketan asi barri. Orregaitik ei daukoz Aramaio'k bere mugak Otxandio'ko ate ondoan.

## ARREOA

Ezkundu baiño lenago, ezkongaien artean maitetasun aundiegia ba'da, gero maitetasun ori gitxituaz joango da.

Bigarren eleizdei eguna zato-eguna da. Orduan erabagitzen

da noz ezkonduko diran, zelango eztaiak, nori deitu... eta beste zer batzuk. Eta bazkaltzen asi baiño len, arreoa erakusten da.

Arreoa burdi baten gaiñean eroaten zan, emaztegaiaren etxetik, senargaiarenera. Burdiaren burpilla egurrezkoa izaten zan, eta txirri ta txirri joaten zan bide guztian. Zenbat eta txirri zoliagoa, ainbat obeto.

Burdiaren gaiñean gorua eta ardatza ipintzen ziran beti, agiri-agirian.

Neskearen aitak erakusten eban arreo: "Amabi atorra daukaz, soiñean be ez dago ain barik; zazpi zapi daukaz, soiñean be ez dago ain barik...", eta abar. "Ona emen guztiak baiño geiago balio dauana", eta au esanda emaztegia aurkezten eban. Eta gauza guztiak erakutsita gero, onetara amaitzen eban: "Gure mixeria auxe da".

Eta senar barriaren aitak erantzun: "Ez dago gauza gitxirik. Guk bera nai gendun. Gauza billa ez gara etorri".

Durango'ko Merindadeak, Astola'ko batzarrean, burdien irrintziak debekatu zituan, lengo gizaldian.

Baiña baserritarrak soiñu ori entzun gura eta onein ekiñaren ekiñaz, azkenean, gauzak leen lez gelditu ziran. Eta txirri ta txirri jarraitu eben gure burdiak baso ta kale-bideetan.

## EZTEGUAK

Etxeko andra barria etxean sartzean, zarrak ur bedeinkatua emon eta gelara lagun egiten eutsan. Eta salda ta ardoa artzen eben.

Gero, sukaldera etorri eta burrunzaillea emoten eutsan, etxeko nagusitasunean sartzen zala adierazteko.

Eta etxetik erlategira, urrengo; eta onantxe esaten jaken erlai:

—Erle-erletxoak, etxeko andra barri au errespetau bear dozue emendik aurrera.

Eltzaurdia deitzen jakon baserrian ez eben au egin, eta erlak iges joan ei ziran.

Ezteguko bazkarian au kantatzen dabe leku askotan:

—Muxu Baltzenean, estaiak ziran arratsean, amazortzi urdai zati nire tupiñaren aurrean, labiru labiru lena, nire tupiñaren aurrean.



Ezkonduta urrengo jaian, etxeoandra zarrak emazte ezkonbarria etxeko illobira eroaten dau. Amagiñarrebak estoleari mun egin eta libra biko ogia emoten dau. Errenak olatea eroaten dau, eta errespontsoak atera be bai.

Bein, Oiartzun'go Altzibar'en Agerre'ko alarguna neskazar bategaz ezkondu zan. Eta ezkonbarriak eleizatik etxera eldu zira-neko, bazter guztietatik mutil taldeak urten eta arran, arratz, txistu, txirula, txilibitu, bakoitzak al eban soiñu jotzaillea eskuetan..., sekulako soiñu eta zaratak jo eutseezan etxe-aurrean.

Burua makur eta aringa sartu ziran ezkonbarriak euren etxean.

Gero erriko mutilla etorri ta uxatu ebazan, arin, zalapartari guztiak andik. Baiña, au aldendu zaneokxe, barriro asi ziran soiñu-lariak jo ta jo, guztiz illundu arte.

## OGIA

Andra Maria'k, Egipto'ra Jesus Umeagaz asto-gaiñean joiala, gal-garaua lurrean jausita ikusi ei eban, eta asto-gaiñetik jatsi ta lurretik jaso.

Galburuak esan eban:

—Txikia ba-nintzan, aundia ba-nintzan, Maiatzean burutu nintzan, andik berrogeigarren egunerako ogi nintzan.

Orregaitik ogi-zatiren bat lurrera jausten ba'da, auxe esan oi da:

—Jaungoikoaren gorputza lurrera jausi da.

Eta txikitxoa ba'da, jan; baiña aundia ba'da, mai gaiñean ezarri bear da.

Ume txikitxoari ogi-kuzkurra lurrera jausi ezkeru, gurasoak mun-erazoten dautsoe.

“San Markos-ogia” deritxo Gipuzkoan, amabitxik Pazkoz bere besotakoari emoten dautson iru-lau arrautzadun opillari.

Lurrera jausten dan ogia eskuz artu bear da, ez lauortzekoz, ezta aitzozbe. Eta mun egin bear jako ogi-zati orri. Bardin eskekoari emoten jakon ogiari be.

Pekatu da ogia alperrik galtzea.

## ATZAZKALAK

Atzazkalak barikuz ebagi ezkerro, negarrez egoten ei da Jaungoikoa. Barikuetan ebagitako atzazkalak deabruarentzat izaten ei dira.

Eta deabruak bere naaste eta tresnak egiten ei ditu eurekaz. Zenbat guzur, ainbeste zuriune daukez emakumeak atzazkale-tan.

Adan'ek eta Eba'k atzazkalezko jantzia ei euken, paradisuan, pekatu egin aurretik. Eta bein pekatu egin eben ezkerro galdu ei eben jantzi berezi eta eder ori.

Eta orduko jantzi orren gomutakitzat ei daroaguz gure atzarretan azal berezi orreik.

Beraz, jatorrizko jantzikiñak dira atzazkalak.

## ORRAZIA

Orrazia neskatxaren burutik jausten ba'da, senargaia beragan pentsetan ei dago.

Orrazia beean, lurrean ikusiarren, ez da jaso bear, lamiñaren bat etorri ez daiten.

Atxurre'ko Mañasi'k orrazia aurkitu eban bein, Lekeitio'tik etxera joiala. Gerotxoago, lamiña bat joan zan orrazi orren billa, eta Mañasi'ren buruan ikusi ebanean, esan eutsan:


—Atxurre'ko Mañasi —emon egidan (egidazu) neure orrazi; emoten ez ba'daustan (daustazu) neure orrazi, zazpigarren belaurarteon galduko daunat (dautzut) eure (zure) azkazi (pamili).

Eta olantxe jaso ei zan. Gerora Atxurre'ko etxe atan, kirrimarra ta motelak izan ei ziran guztiak.

## KATUA

Oso ondo artua da katua euskal-sukaldean, leen, batez be.

Leen, katu bat ilten ebanak, sekulako ordaiña emon bear eban: katu illa, buztanetik tente jarri, eta onetaraxe bera estaltzeko



beste gari emon bear izaten jakon jabeari.

Kanpotik ekarritako katuari, laratzaren inguruan iru ostera emon erazo bear jakoz, itzok esanaz:

—Etixerako zara eta etxerako izan zaitez.

Etxean katar baltz bat jaio ezker, zorionaren ezaugarri izaten da ori.

Katuak iparraldera begira mosua garbitu ezker, eguraldi ederra. Itxas-aldera begira garbitzen ba'dau, euria.

Katua ez da diruz saltzen. Oillanda biren truke emoten da.

Etixerako ona ez dan katua, orrek ez dau etxean egon bear, eta zorro baten sartuta, urrun eroan bear da, eta an bizirik itzi.

Katu batek, bien, egiune edo kontratu au egin ei eban bere etxekoandreagaz:

—Zer nai dok (dozu) soldatatzat, egunean iru lauko, ala etxekoandrearen utsegiteak?

—Nik —erantzun eutsan katuak— nik etxekoandrearen utsegiteak.

Arrapau leikeana beretzat, esan nai eban.

## SAPOA

Neure aitagaz bidez niñoala, lurrean sartuta egoan makilla baten puntan, sapo il bat eskegita ikusi neban, eta nik aitari:

—Zer da ori?

—Sapo bat, eta arik eta igartu arte, ortxe eukiko jok (dau) solo orren jabeak.

—Eta zertarako ori?

—Ori norberari edenik erantsi ez dagion.

—Eta zergaitik makil erre gaiñean?

—Edenak lurrari ukutu ez dagion.

—Bakarrik?

—Eta beste sapo guztiak be il daitezcan.

*Klik-klok, klik-klok* soiñu alaia entzun zan alderdi aretan.

—Noren soiñua da ori, aita?

—Ori, sapoaren soiñua.

—Eta zelan jo leike ain ondo olako pizti itxusiak?

—Zelan? Ez jakiak (dakit) orixe, baiña polita dok (da), eta eguraldi onaren ezaugarri gaiñera.



## SATORRA

Sator -eiztaria, ordu orreitan, gertu egoten da, atxurra gora Satorrak egunean iru bidar joten dau lurra: eguzkia urteeran, eguerdiko amabietan eta illuntzean.

Sato -eiztaria, ordu orreitan, gertu egoten da, atxurra gora daukala. Eta satorra lurrari eragiten asten danean, atxurkada aundi bat emoten dautso.

Lenago satorrak begiak ei eukazan, eta buztanik ez.

Egun baten, ugarasio bat aurkitu eban. Onek buztana bai eukan, baiña, begirik ez. Euron gauzok truke egin bear ebezalata, satorra begi barik gelditu zan, eta buztan barik ugarasioa.

## TXANTXANGORRIA

Txantxangorriak (txindorrak) *txan-txan-txan* kantatzen dau gure pago ta areitz-adarretan.

Paparra gorria daualako daroa izen ori. Baratzetan arrapau ta jatén dituan koko ta arrez bizi izaten da.

Papar-gorria edur egunetan, gose dalako, etxe-barruetara sartzen da, bero eta ogi-apurren billa. Eta olangoetan papar-gorriak ez dala arrapau eta il bear, esaten jake mutikoai, barri ta zorionak ekarten ditualako ango etxeakoentzat.

Bein baten, Andra Maria, Kalbario'ko mendian, Jesus'en eriotz-bitartean, negarrez egoala, altzoa zikindu ei eutsam txepetxak. Eta txantxangorriak, ber-bertatik, zikin ori kendu.

Eta orduan Jesus'en odol-tantatxo bat jausi ei jakon paparrera.

Ordutik eta orregaitik dauko paparra gorria txori on eta polit onek. Orregaitik izen eder ori be.

## TXANTXANGORRIA TA TXEPETXA

Txori bi dira, gurean, oso ezagunak: txantxangorria ta txepetxa.

Txantxangorria, bere papar gorriak, etxe inguruetan ibiltzen da, oso ondo kantatzen dau. Neguko egun otzetan, ba-daki etxe-ganbaratako babesak billatzen be.

Txepetxa, barriz, oso txikia da. Emen ezagutzen danik txikiena; sasieta ibiltzen da, ta abia goroldiaz muñoetan egiten dau, baiña zulo bigaz, iñork arrapau gura ba'dau, bestetik iges egiteko.

Antxiñakoak esaten dabe, Ama Birjiñari arantza bat sartu jakola begian. Etorri ei ziran arin-aranga gure txori biok, eta txantxangorriak argiari eusten eutsan bitartean, txepetxak bere piko zorrotzaz arantzea atera gure Amari.

Ordutik dira euskalerrian ain maitatuak txoritxo bi oneik: txantxangorria ta txepetxa.

## BELEA

Noe'ren kutzako belea zuria ei zan.

Jaungoikoak bialdu eban, uriola-aldiko urak jatsi eta lurra legortu ete zan ikustera.

Bela ori joan, eta ez zan geiago agertu. Eta orregaitik Jaungoikoak madarikatu egin ei eban, auxe esanaz:

—Zuria izan az (zara); baltz egingo az (zara)... Uztaillan eta agorrillan, urik ez dok (dozu) edango.

Bein, txori-talde guztiak iturri bat garbitzen eragoioen. Ama Birjiñaren iturria zan.

Eta orra, non agertzen dan belea. Eta besteak esaten dautsoe:

—Guk lez, ik (zuk) be ekiok (ekin egiozu)!

—Anka ederregiak jaukazat (daukadaz), or erabiltzeko.

Eta orduan esan ei eutsan Jaungoikoak:

—Bi illabetez, uztaillan eta agorrillan, ez dok (dozu) urik edan al izango... Eta egarriz karranka ibilliko az (zara).

Beti *kua, kua, kua* dabil belea, arrezkero.

## LOIDI'KO NESKATXA

Aralar'ko mendian, oiñatz batzuk agiri dira. Oiñatz oneitan, txanponak izten dabez artzaiñak. Artzain batek jasotzen ditu meza baterako dirua osotzen danean.

Ama Birjiñaren oiñatzak dirala esaten dabe artzaiñak.

Oiñatz oneitan, neska koskorrak belauniko jarri, mun egin, eta Aitearen egiñaz, eleizaldera zuzentzen dira.

Eta ona zer jazo zan oiñatz orreikaz, artzaiñen eritxiz:

Loidi eritxon neskatillea, zortzi urtekoa, beizain joaten zan mendira, eta apain orraztuta etortzen zan etxera.

—Nork orraztu aun (zaitu) olan? —esan eutsan bein amak.

—Andra eder batek.

—Zer esan dauna (dautzu)?

—Aterpe bat egiteko, bost latatxo ta zazpi teillatxo eroateko.

Etxean ez eutsoen, baiña, neskatoari aintzakotzat artu agindu au. Zortzi egunez ibilli zan orretara, egunero agertzen jakola andra eder axe.

—Loidi, Loidi dan artean, ez da paltako or, okerra ta makurra

—esan etsan andreak, azken egunean.

Eta emen iñork jaramonik egiten ez eutsalako, Arantzazu'ra joan izan Andra eder a.

## KORU'KO ANDRA MARIA'REN MIRARIA

1688'ko gabonillaren 7'an zan. Itxasoko ur guztia iñoz ezagutu ez dan ekaitz-aldirik gogor bildurgarrienaz irakiten jarri zan.

Aize-bolada indartsu bat sortu zan bapatean. Itxasotik etozan ondamendiak kale barrenetaraiño sartzen ziran. An ta emen, tximistak tximisten gaiñean. Oneitako bat Urgull mendi gaiñeko gazteluan bertan jausi zan.

Eta gaztelupean egozan sutauts-pilloak, sua artu, ta, ene bada! an izan zan dunbada-otsaren dardareak, bazter guztiak zeatz apurtu eta birrinduta itzi ebazan, eta etxerik sendoenak be beea jo eben.

Ez zan gelditu gazteluaren lorratzik be, eta zartadearen inda-

rrez, arriak, enborrak, olak, teilla-zatiak eta abar, kaleetan eta enparantzetan jausten ziran. Ango astrapalea!

Eta askok eta askok, euren azken-ordua eldu zalata, negarrez, eleizara jotzen eben Jaungoikoari eta euren Zaindari zan Ama Birjiñari parkamen-eske.

Eta erabagi au artu eben bertan agintariak, urtero jai ospetsu bat egitea Ama Birjiñaren omenez, urrengo egunean gogoratzen zan Sorkunde Garbiaren izenpean.

## ESTIBALIZ'KO ANDRA MARI

Estibaliz'ko Andra Mari eleizatxoan erabagitzen ziran urteko Epai nagusiak, Araba'n. Ez baiña eleiza barruan, ate-aurrean baiño, antxiñetako oitura zarra zan lez.

Orretarako izentauta euken eguna, orrillaren lenengoa zan. Eta egunsentian asita, illunabarrerarte irauten eben.

Bardiñak ziran, urtero, bagillaren 24'an, Estibaliz'ko Ama Birjiñaren aurrean egin oi ziran Arriaga'ko Batzarrak eritxoenak be.

Ama Birjiñaren irudia Arriaga edo Lakua deritxon landa zabalera eroaten zan, erri osoak atzetik laguntzen eutsala. Eta antxe, Ama Birjiña bera Batzar-buru zala, erriari egokiozan garrantzirik aundieneko erabagiak artu oi ziran. Eta bertan, andik aurretzean erri-agintari nortzuk izango ziran aukeratu be.

## KARIDADEA

Bergara'ko Osintxu'n, jai berezi bat egiten dabe urtero, agorillako azkenengo igandean.

Goizeko ordu bietan, plaza erdian su ederra egin, eta iru ontzi aundi jarten dabez gaiñean, garaiño aragiz heterik. Goiz-aldean, abadeak bedeinkatu, eta lenengo datozen guztiai ogi zati biña emoten dautsez, ontziko saldan sartzeko.



Aragia zatitu gero, eta saskitxoetan jarriaz, andik igaroten diran guztiak banatzen dautsee. *Karidadea* esaten dautsoe aragi zati oni.

Urte baten, uzta txarra izan zala-ta, ez eben betiko zekor ori il. Eta eguna eldu zanean, zekor gorri bat agertu zan plazan, urte atan il bear zana, ain zuzen. Zeruko agiria zala au, ta ez dabe, arrezkero, jai ori sekula itzi.

Beste bein, andra lirain ta aundiki bat, andik igarotea jazo zan egun aretan; eta berak be besteak lez, zati ori artu, gorde ta urrengo sasitzan bota eban, jan nai ezta.

Bereala geixotu ta txarto jarri zan emakume ori.

Andik laster, batzarra euki eben sorgiñak Dima'ko Petralanda'n. Eta beste gauza askoren artean andra arropuz arek egiñiko arrokeria aitatu eben. Eta sorgin batek esan eban:

—Arroputz ori ez da osatuko, sasitza artean sapoak irunsi eban bere ogia artuta jaten ez ba'dau.

Ain zuzen be, gizontxo bat egoan, zugatz baten adarretan ostenduta, eta sorgiñen itzak entzutean, ariñeketan, sasitzara bertara joan eta sapoari ogi-zatia agotik kenduta, beingoan, dama aberatsaren etxera joan zan. Eta sorgiñai entzuna, eta berak ekarrena-ren barri emon eutsan.

Andra geixotuak, orduan, ogiari mun egin, bedeinkatu, eta lotsa ta begirune aundiz jan eban ogi ori. Jan eta osatu. Berealako baten osatu!

Urrengo zapatuan be, sorgiñak batzarra Petralanda'n. Eta lengo gizontxo a be, zugatzaren adarretan barriro.

Eta sorgin batek:

—Azken batzarrean, salatarien bat egon zan emen. Guri dana entzun, eta beko andra orreri erakutsi eutsan gure osapidea.

—Alan don (da) bai —auzoko beste sorgin batek— zelan bestela, arek bere burua osatu?

Zokondo ta bazter guztiak arakatu, eta iñor ez. Alako baten, gora begiratu sorgin batek eta:

—Aiko (begitu) an, aiko (begitu) an —esan eban ujuka.

Areri emon eutsoezan emotekoak! Zorionen baten, sorgiñen aurkako itzik indartsuena esatea gogoratu jakon mutillari: Ai ene Jesus!

Au entzutean, bakar-bakarrik itzi eben gizona Petralanda'n.



## SAN MARTINTXIKI'REN ESTUTASUNA

San Martintxiki errementaria zan. Bein bere arazoen artean, nekearen nekeaz eta boroaren berroz edo, minduta asarrez egoan gizona. Eta estualdi atatik ateratzearen, deabruari arimea emeteko prest egoala esan eban.

Eta deabrua agertuta:

—Emen naukak (naukazu), Martintxo.

—Ez aut (zaitut) nik ezertarako bear.

—Euk (zeuk) dei egin daustak (daustazu), eta ona ni emen.

—Dei egin ba'dauat (dautzut) be, zer egiten naioan (neban)

jakin barik izango zoon (zan).

—Ta, ta, ta! Neugaz bear dok (dozu).

—Ezertariko gogo barik egin dodala!

—Martin, nire eskuetatik jara (libre) egon gura ba'dok (dozu), gauza bat egin bearko dok (dozu), oraintxe bertan: amabi misterio aundiak zeintzuk diran esan.

Nik itandu eta ik (zuk) erantzun:

—Martintxo, esaik (esan egizu) bat.

—Gure Jauna bera dok (da) bat, berak salbauko gaiozak (gaitu), baiña ez i (zu).

—Martintxo, esaik (esan egizu) bi.

—Erroma'ko altarak bi, gure Jauna bera dok (da) bat, berak salbauko gaitzak (gaitu), baiña ez i (zu).

—Martintxo, esaik (esan egizu) iru.

—Iru Trinidadak, Erroma'ko altarak bi; gure Jauna bera dok (da) bat...

—Martintxo, esaik (esan egizu) lau.

—Lau ebanjelariak lau, iru Trinidadak... eta abar.

—Martintxo, esaik (esan egizu) bost.

—Jesukristoren zauriak bost, lau ebanjelariak, iru Trinidadak...

—Martintxo, esaik (esan egizu) sei.

—Sei argi-egilleak, bost Jesukristoren zauriak... e.a.

—Martintxo, esaik (esan egizu) zazpi.

—Zazpi Sakramentuak, sei argi egilleak...

—Martintxo, esaik (esan egizu) zortzi.

—Zortzirak dira zeruan, zazpi...

—Martintxo, esaik (esan egizu) bederatzi.

—Bederatzi ordenamentuak... eta abar.

—Martintxo, esaik (esan egizu) amar.

—Amar mandamentuak... eta abar.

—Martintxo, esaik (esan egizu) amaika.

—Amaika milla aingeruak... e. a.

—Martintxo, esaik (esan egizu) amabi.

—Amabi apostoluak, amaika milla aingeruak, amar mandamentuak, bederatzi ordenamentuak, zortzirak dira zeruan, zazpi sakramentuak, sei argi-egilleak, Jesukristoren zauriak bost, lau ebanjelariak, iru Trinidadak iru, Erroma'ko altarak bi, Jesukristo bera dok (da) bat, berak salbauko gaiozak, baiña ez i.

—Martintxo, esaik (esan egizu) amairu.

—Ez dok (da) amairu.

—Ba-dok (da) amairu.

—Oillarrak jotzen dau munduan, aingeru ederrak zeruan, neu-  
re arimea izten dausat Andra Maria'ri altzoan.

Eta, orduan, alde egin eban deabruak.

## ATARRABIO

Atarrabio, Goiñi'n, abade egoala, bazkalondoko loa egitera joian eta zeru-ertzera begiratuaz, amari esan eutsan:

—Ama, odei a aundituaz ba'doa, trumoi-otsa asi baiño len, deitu neuri.

Ama aitzu, eta berandutxo deitu eutsan semeari. Odeia gainean zan. Arin-aringa jagi zan abadea. Gari ederrak ziran Goiñi'n urte atan. Odei artetik Txerrenak (deabruak) esan eutsan.

—A zelako zaldiak daukadazan nik ire (zure) gariak joteko!

Eta abadeak konjuruetako liburua ta kurutzea eskuan zituala:

—A zelako ao-sokak daukadazan nik ire (zure) zaldiok geldit-  
zoko!

Illerri ondoan upel-pillo aundi bat egoan, eta an sartu ei zan odei artetik jausitako arri guztia.

Eta oso-osorik gelditu ziran Goiñi'ko gariak.



## ATARRABIO ERROMA'N

Jaunaren argitasun bat izan eban bein Atarrabio'k: Aita Santua Erroma'n gizon gaizto birekin jardunean egoala ta, aren alde zerbait egin egiala.

Iru *jenio* zituan Atarrabio'k bere menpean. Onena nai eban, Erromara joan eta Aita Santua Estualdi aretatik ateratzeko. *Jenio* bata agertu zan.

Eta abadeak:

—Zenbat denporan eroango nok (nozu) Erroma'ra?

—Ordu lauren baten.

—Ez az (zara) on (zagoz ondo).

Deitu bigarrenari, ta:

—Zenbat denporan eroango nok (nozu) Erroma'ra?

—Bost minutotan.

—Ez az (zara) on (zagoz ondo).

Deitu irugarrenari, ta:

—Zenbat asti bear dok (dozu) ni Erroma'ra eroateko?

—An —emen.

—I (zu) bear aut (zaitut).

—Baiña, zer sari emongo daustazu?

—Nire gaurko bazkariaren gaiñeko onena.

Itxasoan joiazala *Galtzagorrik* (1) uretara bota nai ebalako, itaun au egin eutsan:

—Zelan da kristauok esaten dozuen a izen gozo a? (2).

—Arre-diablo —erantzun eutsan abadeak.

Erroma'n Aita Santuaren jauregira eldu, ta atezaiñari:

—Aita Santuarekin egon bear dot.

—Ezin leiteke.

—Nai ta naiezkoa da, ba; ikusi bear dot.

—Ezin!

—Orduan Atarrabio'k kana bat emon eutsan atezaiñari, esanaz:

—Kana onegaz artu egizu Aita Santuak daukan maiaren neurria, luze-zabalean.

Kurutze bat eukan kana arek. Atezaiña bera eskuan ebala joan zan, eta Aita Santuaren maia neurtu eban.

Ordu berean alde egin eban emakume arek: inpernukoa zan.

(1) Galtzagorri = Deabruaren izena.

(2) Kristau-izenak, deabruaren indarrak ondatzen ditu.

Eta Aita Santuak atezaiñari:

—Nork aginduta egin dozu ori?

—Or dagoan gizon baten aginduz.

—Datorrela!

Atarrabio Goiñi'n zan ordurako. Erroma'tik etorkeran sukaldera eldu ta, bere soiñekoak astintzean, edurra jausi jakon.

—Zer dok (da) ori? —amak.

—Jaka'ko mendietan edurra da, ama.

—Zelan dakik (dakizu)?

—Burruntzian dagoan oillar orrek kukurruku egingo dauan bestean ziur.

Eta kukurruku egin eban oillar erreka, eta amak orduan siñestu.

Amar intxaurregaz bazkaldu bear ebala, esan eutsan gero amari. Jan zituan intxaurrak, eta bazkariaren gaiñekoa (intxaurezalak) *Galtzagorrirentzat* izan ziran.

## AXULAR'EN ITZALA (GERIZEA)

Axular eta beste bi leza batera joan ei ziran, bein, txerrenarekin zerbait ikastera. Txerrenak ikas-saritzat, euretako bat an gelditzea eskatu eutsen.

Andik urtekeran, ikastaroa igarota gero:

—Nor da emen geratu bear dauana? —esan eban txerrenak.

—Neure atzetik datorrena —erantzun eban Axular'ek; oratu orri!

Txerrenak ezpatea sartu, eta geldituazo eutsan ikasle orri. Axular'en itzala (gerizea) zan, an geratu zana.

Gero Sara'n parroko egon zan. Meza bitartean, gure Jauna goratzean bakarrik izaten eban Axular'ek itzala (gerizea); osterantzean, ez.

Axular'ek ez eban beste mundura itzal barik joan nai. Orretarako bein sakristauari esan eutsan:

—Sagara orduan, gure Jauna goratuta daukadanean, jo nagik (nagizu) buru-buruan, mallu aundi bataz, eta il nagik (nagizu). Atera egidak (egidazu) gero biotza, eta ziri baten buruan jarrita, ateaurrean ezarri.



Beleak eroaten ba'jok (dau), kondenauta egongo nok (naz);  
usoak eroaten ba'jok (dau), salbauta. Ortixek igarriko dok (dozu)  
nire arimearen zoria.

Sakristauak agindutakoa egin eban. Bela-talde aundi bat eto-  
rri zan, eta areik biraka-biraka ebiltzala, uso zuri bat agertu zan,  
eta onek eroan eban biotza.

Orduan, siñestu eben Axular zeruratua izan zala.

## AZELAIN'GO ZUBIA

Argin batek bere gain artu eban Azelain'go zubia egiteko ara-  
zoa.

Egin-samar eukanean, *plaust!* lurra jo eban. Bigarrenez be  
asi, eta giltzarria ezarri aurretxoan bardin, *plaust!* lurrera barriro  
be.

Orduan, argiñak amorratuta, itz oneik esan zituan:

—Auxe zubi au amaituta ikusteagaitik, neure arimea edozeñi  
salduko neuskio.

Urrengo arratsaldean, deabruak lanean asi ziran. Argiñak  
baiño aldi laburragoa bear izan eben ia azkenera eltzeko. Zubi ori  
amaitzeko egozala, deabruak gau baten, kantuz asi ei ziran:

Eskuz-esku Labain'go arria  
ia amaitu dogu Azelain'go zubia.

Ea mutillak, eun ta bat milla gaituk (gara),  
arri baten paltan gaituk (gagoz).

Argiñak, bere arimea arein eskuetan itzi bear ebala ikustean,  
abadeagana eleiz-araoen edo konjuroen billa joan zan.

Abadea etorri eta araoka edo konjuroka deabru guztiak uxatu  
zituan.

## IRE (ZURE) ARIMEA NIRETZAT, NIRE DIRUA IRETZAT (ZURETZAT)

Munduan beste asko bezala, anai bi asi ei ziran abadetzako  
ikasten. Baiña txiroak izan eta ikastaldiak itzi bearrean aurkitu  
ziran.

Bein baten, mendira joan ziran, eta an gizon bat aurkitu eben.  
Eta gizon arek ia zer egiten eben itandu eutsen.

—Abadetzako asmoan asi giñan; baiña dirurik ezaz, itzi bea-  
rrean aurkitu gara.

—Neuk emongo dautsuet zorro bat bete urre eta baso bat;  
emetik urte bete barruan, basoa zerez egiña dan, asmatzen ba'do-  
zue, zeuentzat izango da zorro-urrea, ta bestela, neuretzat izango  
dira zuen arimak.

Anai biok etxera joan, eta sarri eskatzen eutsen Jaunari, a  
basoa zerez egiña zan, iragarri egiela.

Urtea betetzeko egun bat palta zala, mendira joan zan anai  
areitako bata, eta an leza baten atean jarri. Eta an zelatan egoala,  
deabrua ikusi eban sorgin bategaz dantzan. Eta alango baten, dea-  
bruak esan ei eutsan sorgiñari:

—Biar, ordu onetarako, nik gazte bi etortzeko joñataz (dodaz),  
ba.

—Zertarako?

—Baso bat eskiñi neuntsenan (neuntsen), zerez egiña zan,  
asmatzen ba'eben, zorro-urre bat eurentzako izatekotan, eta beste-  
la euren arimak neuretzako izatekotan.

—Zegaz egiña dok (da), ba, baso ori?

—Bariku eta larunbatean ebagitako atzazkalakaz.

Eta leza atean egoan mutillak itz guztiak entzun. Eta urrengo  
egunean, ba-doaz anai biak mendira, eta deabrua zaldi gorri baten  
gaiñean agertu jaken, eta itandu:

—Ba-dakizue, zegaz egiña dan basoa?

—Barikuz eta larunbatez ebagitako atzazkalakaz.

Orroaka joan ei zan deabrua, eta zorro-urreagaz gure muti-  
llak.

Eta zorro-urre aregaz, abadetzarako bear aiña izan eben anai  
biak.



## GAUEKO

Jurreta'ko baserri baten, arta-zuriketan iñarduen.  
Arta-buruak batzeko burdin-eskutaillarik ez eukela-ta, etxe-  
mutillak esan eutsan bertako neska bateri:

—Landan itzi jonagu (dogu) gure eskutaillea, ezetz joan i (zu)  
aren billa?

—Baietz joan; zer nai dok (dozu) jokatu?

—Ogerleko bat.

Neskeak itza artu, eta ba-doa landara. Gau illuna zan gau ata-  
koa. Eta landan, batera ta bestera, eskutailla ori aurkitu eziñik ebi-  
llala, *Gaueko* agertu jakon, bat batean, eta bere adarrakaz, *rau!*,  
buruko uleetatik oratuta, aurrean eroan eban neska errukarria,  
aidez-aide, Untzillatx gaiñetik, Urkiolamendiraiño.

Eta an, egunsentirantza, Urkiola'ko eleizako argi-kanpaiak  
entzun ebazanean, otoitz au egin eban neskatxak:

—Aita San Antonio Urkiola'koa, salbau nagizu, arren.

Ordu berean, *Gaueko'k* neskea askatu bere adarretatik, eta  
neskatxa Santa Apolonia'ren ermitatxo ondora jausi zan.

## GAUEKO TA KATALIN

Lenago, Lauzpeltze'ko baserrian, gauero-gauero, ardazle-  
talde aundia batzen ei zan, goruetan egiteko.

Alango baten, bertako neskeak, baietz Iturriotz aldeko men-  
dian dagoan iturritik ura ekarri eta besteak ezetz, eta orretara era-  
goioen alkarregaz.

—Ia, posture bat egin daigun —neska onek.

—Tiron (tira) ba —besteak.

Neska ori, artu suilla eta iturrirako bidean jarri zan. Eta bes-  
teak, Lauzpeltze'ko etxe-aurrean, illargitan, aren zain gelditu  
ziran. Noizean beinka, deadar egiten eutsen:

—Non ago (zagoz)?

—Urli tokitan —erantzuten eban neskeak.

—Non ago (zagoz)? —barriri be, gerotxoago.

—Urli tokitan.

Eta neskearen abotsa geroago ta gitxiago entzuten ei zan.

—Non ago (zagoz)? —ostera be.

Eta ez ei zan geiago aren erantzunik entzun. Ardazle guztiak larri baten egozan, zer jazo ete jakon neska orri.

Alako baten, Lauzpeltze'ko ate-ondoan aize-bolada batek jo ei eban, aidean batenbatek deadar egin:

—Gaua gauekoentzat, ta eguna egunekoentzat, Lauzpeltze'ko Katalin geuretzat.

Ta geiago ez ei zan neskearen lorratzik be izan.

## TARTALO

Bekokian begi bakardun erraldoi indartsu bat mendian bizi izaten zan, ardi ta giza-aragiz janaritzen zana.

Bein, mendira, ardi billa joian artzain gazte batek, Tartako eritxon erraldoi ori aurkitu eban.

—Nora oa (zoaz), mutiko?

—Ardi billa.

—Ator (zator) neure koba-zulora.

Eta zulo aretara joan ziran. Mutilla, ango gauzak ikusita, arri ta zur egoan: laratzean dingilizka galdara aundi bat, giza-besoz eta iztarrez beterik. Eta bazterretan, ardi-narru ta gizon eta emakume askoren soñekoak.

—Sartu egik (egizu), mutil, burrunzia sutan, eta jan egik (egizu) orko iztar ori, ik (zuk) be jana izan bear dok (dau) eta.

Eta artzaiñak bere barruan:

—Naiz batera, naiz bestera galdu, bardin jaustak (daust).

Tartalo, bitartean, lo-zurrunka egoan. Eta artzaiñak burrun-tzi gorria artu, eta begitik sartu eutsan, eta itsu gelditu zan erraldoia. Aren karrazi eta uluak!

Mutilla ardi-narruen artean gorde zan.

Tartalo, mutilla arrapau naiean, koba-zuloko atean egoan, iztarrak zabal-zabalik. Eta ardiak bere iztarpetik kanpora joiazanean, Tartalo'k bakoitzari uleetan ukutzen eutsen.

—Galdua nok (naz) —iñoan mutillak bere artean. Burutasun on bat izan eban, onetan: bera be ardi-narruz jantzitea, Tartalo'k ez ezagutzeko.

Alan jantzita, eta erraldoiaren iztarpetik igaro zanean, bizkarean ukutu arren, ez eban Tartalo'k nor zan igarri.

Andik urten ebanean, ardi-narrua jaurti, eta ariñeketan asi zan.

Tartalo'ren eraztunak izketan ekian, eta jabeari esan eutsan:

—Tartalo, Tartalo: or joak (doa) mutilla!

Tartalo'k eraztuna jaurtiaz, mutillari atzamar txikerrean sartu.

—Tartalo, Tartalo: emen naiagok (nago), emen naiagok (nago).

Tartalo mutillaren atzetik arinka asi zan.

Eta mutillak ezin kendu atzamarretik eraztun salataria. Aiztoagaz atzamar txikerra ebagi, eta osin batera jaurti eban eraztun ta guzti.

Eta eraztunak barriro be:

—Tartalo, Tartalo: emen naiagok (nago).

Eta Tartalo osiñera *blaust!* salto egiñaz, bertan ito zan.

Andik aurrera, artzain a, nasai bizi izan zan.

## YOLDI'KO ZEZENEA

*Beigorri* da Euskalerriko beste *aide-jenio* gaizto bat. Leza eta arzuloetan bizi oi da. Eta ez dau, iñondik be, leku oneitako ixil ta bakea galdu nai.

Txindoki, Okina, Ostibarre, Ustatxo ta Iturriotz'ko lezetan bizi oi da. Batzuetan, baiña, kanpora urten eta gizaki batzuei agertu izan ei jake, jazoera onek diñonez.

Yoldi erriko Etkezuri baserriko etxeoandrea, merkatu-arratsalde batez, Irisarri'tik etorrela, aren bidera joan nintzan ni.

Etixerakoan, zezenaren antzeko pizti aundi bat jarri jakun aurrean. Eta bidalditxo baten joan zan gure aurretik.

Ikaratu giñan.

Ia errosarioak aldean nituan itandu eustan etxeoandreak.

Ezetz, esan neutsan.

Eta etxeoandreak besotik eldu eustan.

Errosarioak atera zituan bere sakeletik, eta otoitzean jarri zan berealaxe.

Bereala galdu zan pizti a be.





## NEUK NEURI

Bein, Leiza'ko txabola baten, artzain bat bizi zan. Egunero-egunero, gatzura gertatzen ebanekoxe, goiko arzulotik, jentil gazte bat jasten jakon, eta arrizko jarleku baten jesarri, eta gatzura guttia edaten eutsan.

Alango baten, artzain orrek, bere lagun bateri azaldu eutsan zer jazoten jakon: Eta besteak erantzun ei eutsan:

—Ba-dakik (dakizu) urrengoan zer egin bear dokan (dozun), jentil ori datorrenerako?

—Zer?

—Jarleku ori sutan gorituta ipiñi.

—Orixe..., orixe egin bear joat (dot). Urrengo egunean, sutatik jarlekua aterategaz bat-batean, ona barriro be, betiko jentilla. Baita besteetan lez, aren gaiñean jesarri be. Jarrea eta deadar baten zutuntzea dana bat izan zan, eta sekulako abidan andik aldendu zan.

Aren deadarretara bere gurasoak zulotik urten eta itaunka asi ei jakozan:

—Nork egin dauts..., nork egin?

—Neuk neuri, neuk neuri!

—Euk (zeuk) eure (zeure) buruari egin ba'dautsak (dautsazu), or konpon, esanda —beste barik itzi eben.

## OKINA'KO ARDIA

Okina'ko gazte bat Arantzazu'ra abiatu zan.

Eta Okina'ko zulotik igarotzean, ardi bat ikusi eban leza ondoan. Eta esan eban bere artean:

—Ederto etorriko jat onantzerakoan, or jarraitzen ba'dau.

Eta egun bi geroago, etxerantza etorrela, leku beratan aurkitu eban lengo ardia.

Joan zan, ba, here atzetik. Eta eskuak ezarri eutsazaneko, berarizko indar batek eraginda, lezarantza bultz-egiten eutsan abere txikiak. Eta ezin zan aregandik ez askatu ez aldendu.

Arantzazu'ko Andra Mariaz gogoratu zan orduan, eta otoitz au egin eutsan Berari:

—Arantzazu'ko Andra Mari, balio zakidaz, balio...  
Itzok esan ordukoxe, ardiak itzi eutsan, eta inguruko leza zokoan galdu zan bereala ardia.

## JENTILLEN ARAOA

Ataun'en ba-da Agerre izeneko baserri bat.  
Ango etxaguna gaisorik ei egoan bein. Eta inguruko Jentilbaratzeko jentillak bera ikustera etorri jakozan; eta urrezko zapi eder bat ekarri eutsoen, Eleizakoak artu bearko zituan unerako.

Gaba zanez, etxean gelditu ziran, laguna zaintzen.

Eta gaisoaren etxekoak, zapi aregaz maite-minduta, gaisoaren ogeari lotu eutsoen untze gogorrez.

Gero kortara joanda, kendela bi jarri eutsoezan aurrean oillarrari. Eta argi a ikustean, kukurrukuka asi zan berealaxe oillara.

Kukurruku ori entzutean, anka egin eben bertatik jentil guztiak. Baiña, alde egin baiño lenago, urrezko zapi areri tiraka egin, erditik urratu, eta aren zati bat eurekaz eroan eben. Bertan gelditu zan beste erdia.

Eta jentillak aidean joiazala, arao (maldeziño) au bota eben Agerre'koen aurka:

—Agerre'n, Agerre dan arte, ez da egongo ez gaiso barik, ez elbarridun barik.

Eta alantxe gertau ei zan.

## JENTILLEN INDARRAK

Orain urte asko, Auza'n jentillak bizi ziran. Areitako jentil bat Naparroa'ra garj-billa joan zan.

Eta ba-etorren jentil ori, Aralar'ko atxetan beera, zazpi idinarru gariz beteta, eta bere alabeagaz, ain zuzen, bat egin bidean.

Iturritik etorren neskatxa bere suilla buru gaiñean, gorputza lirain, eta bere esku biai bizi eragiñez. Eta bere aita ikustean:

—Oi, aita!

—Zer don (dozu), alaba?  
—Atsedean egizu!  
—Zertarako?  
—Ura edateko!  
—Ai labatxo, alabatxo..., jakin izan ba'neionan (neban) atsedena zer dan, beste ainbeste gari ekarriko ñonan (neban).

## JENTIL-ARRIAK

Basajaunak, izenak berak diñonez, gure basoetako jaunak izan ziran.

Gero Jentillai emon eutsen izen ori; gero Sanson'i; Erroldan'i, urrengo; eta Mairuai, azkenez.

Berarizko indar aundiak eukezan Basoko izaki edo lagunok. Eta eurok abailka botatakoak ei dira gure ibarretako atx-arri aundiak.

'Ona, orretariko arri baten ipuiña:

Pelotari batzuk Murumendi'n pelotan ei iñarduen. Eta jentil bat eurekana joan eta itandu ei eutsen:

—Zer egiten dozue emen?

—Pelotan jokatu!

—Zertarako dozue arri au?

—Saka-arritako.

—Berau be ez da txarra, pelotaren antzera jaurtitzeko. Ta artu eskuetan Sakarria, eta sekulako burrundaran Aralar aldera bota ei eban. Ta arri ori olango ariñean aidez joiala, zati bi egin, ta bata Gaztelu'ko aizpera ta bestea Alontza'n jauzi ei ziran.

Alontza'ko arri zati ori ez da txantxetako, eta or dago oraindik, erdiz-erdi, bide zidor baten erdian.

Santarria esaten dautsoe ango artzaiñak.

## ERROLAN-ARRIAK

Lexigieta'ko gaiñera elduta, Errolan aundiak, Madalena-tontorren gaiñetik burua jasoaz, Espaiñetako mendi-gallurrak Mahomatarren gudariz baltz-baltz ikusten ditu.

—Gudaroste izugarri ori ondatu egin bear da. Eta Errolan aundiak mendi tontor oso-osoa artzen dau esku zabalean. Eta mairu baltzen gaiñera botateko abiadea artzera doa.

Baiña, mendi gain a beitokia zanez, pekorotzean laban egiñez doa bere abiadan.

Eta a mendi tontor a, indar guztiaz jaurti arren, oker joianez, mairu baltzakandik urrin gelditu zan, iru zati eginda.

Lenengo zatia, Ligi'ko mendian zutun-zutunik geratu zan. Bardin geratu zan bigarrena, Etxebarre'ko mendian. Eta irugarrena, Lakarri'ko landan.

An dagoz, arrezkero, besteengandik ondo bananduta, eta areik baiño askoz aundiago. ERROLAN-ARRIAK deitzen dautsegu Basaburutarrak.

## IRU EGIA

Txabolatik jatsi zan, bein, artzain bat, bere zerak artuta. Baiña, taloburdiña txabolan aiztuta itzi eban, eta atzera biurtu zan aren billa.

—Nora oa (zoaz)? —itandu eutsan basajaunak.

—Neure taloburdiñaren billa.

—Iru egi esaten ba'dozak (dozuz), eukiko dok (dozu) taloburdiña.

—Gau onen ederra! Eguna baizen argia dago, esan leike norbaitek? Ez, sekula.

—Orra egi bat —esan eban, orduan, basajaunak.

Bigarrena. Belea eriotza baizen baltza dala esan leiteke iñoiz? Ez, sekula.

—Orra beste bat —gaiñeratu eutsan basajaunak.

—Irugarrena. Nik gaur jakin izan ba'neu zu gaur emen ziñala, ez nintzan ona etorri izango.

—A...! Ori bai egia. Taloburdiña euretzat (zeuretztat)!

Eta, gero, bere taloburdiña eskuan ebala, etxera joan zan artzaiña.

## SAN MARTIN ETA BASAJAUNA

San Martin Ataun'era etorri zanean, ez ekian ez erriko ez nekazaritzako barririk.

Eleiza bat nai eban egin, ibarreko zelai zabal baten. Basajau-nak muiño-gaiñean egitea nai eban. Egunez basajaunak egindako lanak, gabaz, ibarreko zelaira ekarri oi zituan San Martin'ek. Gau baten, atso bat egoan zelatan. Eta San Martiñ'ek bere buztarri-idiari:

—Aida zuria, aida gorria  
or zelatan dagoan atso orri  
ateraio (atera egiozu) begia.

Idi batek bere adarraz atera eutsan atsoari begia.

Egin eban eleiza ori San Martiñ'ek, baiña, bertako gizonentzat ez egoan ez lanik ez solorik. Basajaunari laguntzea eskatu, eutsan, baiña alperrik! Au saltoka ebillan, bein, gari-garau pillo baten gaiñean.

San Martiñ'ek, a alan ikusita, iztar goraiñoko polainak egin, eta eurak soiñean zituala:

—Ik (zuk) egiten dokan (dozun) ori nik be egin neikek (neike) —esan eutsan basajaunari. Eta saltoka asi zan bera be, pillo batetik bestera, eta polainak gari-aziz beterik, joan zan etxera.

Itaun au egin eutsan gero, lengo basajaunari:

—Noiz ereiten da garia?

Basajauna bere lagunakana joan, eta irri ta barre artean, San Martiñ'ek itandutakoaren barri emon, eta esan eutsen ojuka:

—Orri-urtete, arto-ereite;  
Orri-legorte, arbi-ereite;  
orri-erorte, gari-ereite.

Ezkutauta egoan San Martin, bien bitartean, eta bere gordelekutik, entzun zituan basajaunaren itzok.

Eta aregandik ikasita, lapurtutako garia erein eban. Eta uzta ederra emon eban gariak. Eta ederto janaritu al izan zituan, arrezkero, bere eleizako mutillak.

Eta otoitz au esaten eban, egunero, San Martiñ'ek, jatordu aurrean:

—Janak on daigula, edanak gatzik ez;  
gorputzak osasuna, arimeak kalterik ez.

## SAN MARTINTXIKI TA BASAJAUNA

Basajaunak zerrak egiten zituan bere olean. San Martintxiki'k, oraindik ez eban inoiz, aren itxurazko gauzarik ikusi.

Eta ikasi guraz, bere mutilla bialdu eban San Martintxiki'k, errian zear, bere nagusiak zerrak egiten ikasi ebala, lau aizeetara zabalduaz. Basajaunak entzun, eta itandu ei, eutsan mutil orri:

—Gaztain-orririk ikusi al jok (dau) ire (zure) nagusiak?

—Ez, baiña laster ikusiko jok (dau).

Mutillak bere nagusiari basajaunaren itzok azaldu. Eta San Martintxiki'k gaztain-orria, agin koskadun orri ori ikusi, eta aren irudira, egin eban lenengo zerrea.

Basajauna San Martintxiki'ren olara joan, eta lenengo zerra a ikusita, amorruez bete, eta oker-oker eginda itzi eutsan. Obetuta itzi eban, orrelan, San Martintxiki'ren zerrea.

Eta orrelantxe zabaldu ei zan, munduan, lenengo zerrea.

Beste orrenbeste egin eban San Martintxiki'k burdiñaren zoldaketa ikasteko. Bere mutilla errian-zear bialdu, eta asi ei zan, bere nagusiak zoldaketea ikasi ebala, lau aizeetara zabaltzen. Eta Basajaunak, barriro:

—Burdin-zatiak bustin uraz igurtzi al jozak (dauz) ire (zure) nagusiak?

—Ez oraindik; laster egingo.

Alan egin, eta lenengo zoldaketa egin eban San Martintxiki'k, eta beingoan zabaldu zan lankera au, mundu guztian.

Era berean asmau ei eban baita burdi-ardatza be. Areitzezkoa zan San Martintxiki'ren burdi-ardatza. Bereala berotu ta erretzen zan; orregaitik, ez eban lanerako balio. Basajaunaren ardatza, barriz, ez zan sekula, ondatzen. Eta San Martintxiki'k bere mutilla barriro be bialduta:

—Asmau jok (dau), azkenez, nire nagusiak erretzen ez dan ardatz egokia.

—Altzezko ardatza jarri dautsala, esan gura jok (dau) orrek —basajaunak erantzun.

—Ez, ez jok (dau) oraindiño jarri, baiña laster bai.

Eta alantxe egin eban San Martintxiki'k; orrelantxe asmau eban lenengo burdi-ardatz egokia.

Eta bereala zabaldu ei zan, munduan, ardatz barria.

## BASAJAUNAREN ARGIMUTILLA

Illunatze'ko atxetan, Salvatore'tik gora, basajaun bat bizi zan. Argi-ontzi eder bat eukan berak, eta eguzkitara ateratzen ebanean, dir-dir egiten eban.

Egun batez, artzain batek, basajauna an ez zala, bertan sartu, bizkarrean artu eta Salvatore aldera ekarren.

Basajauna oartu zanean, atzetik ariñeketan asi, eta ia-ia oratuta eukan artzain lapurra. Deadarka asi zan, orduan, artzaiña:

—Salvatore jauna, arren, balio zakidaz. Esku-ikusit eder bat ekarri nai dautsut.

Eta ordu atan bertan, Salvatore'ko txiliña *tilin-tilin* joten asi zan, inork eragin barik. Bertan gelditu zan basajauna, zirkin bat be aurrera egin ezifnik. Eta esan eutsan artzaiñari:

—Eskerrak emozak (emon egiozuz) Salvatore'ko txilin zar orri, bestela...

Eta eleizan gelditu zan gero artzaiña bere argi-ontziagaz.

Andik gerora, euren errira ekarri nai izan eben argi-ontzia Mendibetarrak. Gizon batek ekarren bizkarrean, eta Arizkurutzeta'ra eldutakoan, ezin aurrera zirkiñik egin eta bertan itzi eban.

Andik laster, burdi aundi bategaz etorri zan. Ezin, baiña, onetara be eroan, eta barriro lengo eleizara eroan bear izan eben.

## BASAJAUNA

Bein baten, Gorbea mendiko leza baten ondoan, Ipiña'ko gizon bat egoan pagoa zatitzen aizkoreaz. Legoaldi dauko izena leza orrek.

Eta basajaun bat agertu jakon, bapatean. Ikaragarritzko itxurea eukan basajaunak, eta aren anak mee, estu ta gorriak ziran.

—Eta —“ator (zatoz) kobara neugaz” —esan eutsan.

Eta gizonak:

—Itxaron, au zatitu arte. Eutsi egiozu, mesedez, oni.

Eta basajaun ikaragarriak pagoari egindako ebagi bitartean esku biak sartu zituanean, besteak ango ziriak atera, egur-arrakala estutu, eta antxe itzi eban, basajauna karrazika.



## GAZTELU'KO LAMIÑAK

Antxiña baten, baserritarrak janariak izten ebezan euren soloetan, gabaz, lamiñak jan egiezan. Euren alde eukiten ebezan orretara lamiñok. Eta oneik arein soloak landuten ebezan ordaiñez: artajorran, artazuriketan eta olan.

Oneitariko lamiña batzuk Gaztelu'ko dorrean bizi ei ziran len. Eta ate aundi bat ei eukan gaztelu orrek, etxe barruan, lurpera. Ate orretatik sartu ezkerro, arzulo aundi ta zabala ikusten zan. Arpe orretan amalau gela aundi eukezan lamiñak, danak ondo jantzi eta marrazki ederrez apainduak.

Arpe aundi ta zabal onek Isturitz dau izena.

Ikusle asko be sartzan ziran leza orretara, kandela bedeinkatuak eskuetan. Eta lezan barrurago joanez-joanez, bedar-ziriak botatzen ebezan lurrera, gero onantzarakoan, nondik urten jakiteko.

Lamiñak euraxek egin ei eben gaztelu sendo au. Eta gabardi aurre baten ordu gitxitan egin be.

Lan ori egin eben lamin guztiak Gillen eben izena.

Eta lan ori egiten eragoien bitarte guztian, alkarri itz bakarrok esaten ei eutsezan:

Autso (eutsi), Gillen; ekak (ekarri egizu), Gillen; artu, Gillen; ezarri, Gillen.

## LAMIÑA BAT ETA BERE EMAGIÑA

Lamin-zuloan lamiñak bizi ziran. Eta areitako batek emagiña bear eban. Eta bat errira etorri zan emagiñaren billa.

Ez eban emagiñak alango jende artera joan nai.

Areik be jendeak zirala, ta joateko.

Eta joan zanean esan eutsen:

—Andik ezer ez atera gero!

Lamiña librau zan.

Eta emagiñak ogi-zati bat artu eban, etxean erakusteko. Eta ogi ori eukalako, zulo aretatik urten eziñik gelditu zan. Eta lamiñak:



—Zerbait artu don (dozu) ik (zuk)?

—Nik? Ezertxo be ez!

—Zelan ezin don (dozu) urten, ba, emetik?

—Bai..., ogi-zati bat artu jonat (dot), etxekoai erakusteko.

Ogi osoa emon eutsoen gero. Eta gauza asko erakutsiz:

—Aukeratu egin (egizu) nai donana (dozuna).

Eta urrezko txarrantxea aukeratu eban.

Erreka bat igaro bear eben. Lamiñak aurretik abartxo bate-gaz, *plast!* ura jo, eta errekea legor gelditu zan.

—Gero ez atzera begiratu.

Emagiñak, baiña, atzera begiratu eban, errekeak legor jarraitzen ete eban ikusteko, eta txarrantxaren erdia laminzulo atara joan jakon.

## LAMINZULOKO ABERASTASUNAK

Aita batek, il zanean, seme bi itzi zituan, eta bientzat amalau mando, beste ondasunik ez.

—Mandazain zabiltzenean, eleizaren bateko meza-ekzila entzuten ba'dozue, beti nire arimearentzat meza entzutea eskatzen dautsuet.

Ez zituan seme gazteak aitaren itzok bein be aitzu. Erri batera eldu, eta meza-ekzilak jotzen ba-eragoion, bera beti mezatara.

Zarrenak mandoak eleiza ondoan nonbaiten lotzen zituan, baiña, bera ez zan eleizan sartzen. Eta bere anai gazteak, bein:

—Ik (zuk) ez dok (dozu) mezarik entzun!

Asarratu, eta azkenean posture bat egin eben: mezeak mandoak baiño geiago balio ba'dau, gaztearentzat izango ziran amalau mandoak; zarrenarentzat, bestela.

Bidez joiazala, zaldun bat aurkitu eben, eleizaren kontrakoa bera. Eta bere eritxia eskatu eutsoenean, itz itsusiok esan zituan:

—Mezeak asko balio dau..., zazpi mandoak geiago.

Mandazain gazteak bere zazpi mandoak galdu, eta anai zarrenari emon bear izan eutsazan. Bide-zorroak bakar-bakarrik gorde zituan beretzako. Eta mandazain izatetik, eskeko biurtu zan.

Lenengo egunean, aterik-ate, eskean ibilli ondoren, baso batera eldu zan gaberako. Erdi lotan egoala, amabi gizonak eta amabi

mandok urten eben zulo batetik. Ikaratuta, zugatz baten gaiñera igon eban berak.

Urrengo goizean, il nai bizi, gizon arein lamizulora sartu zan. Ango urre eta zidar-mendiak!

Eskean batutako guztiak bota, eta bere zorroak diruz garaiño beterik, urten eban lamizulotik.

Urrengo erriko ostatuan morroi artu eben, eta lau bat illabete-ren buruan, aberatsa zala ikusita, etxeko alabeagaz ezkondu zan. Egun atatik, eskeko guztiai limosna emoteko agindu eutsen etxe-koai.

Bein, bazkaltzen egozala, bere anaia etorri zan eskean atera. Eta bera nor zan berbakeratik ezagutuaz, esan eutsan neskameari:

—Neu joango naz, zagoz or!

—Mutil..., i (zu) limosna eske?

—Bai, mutil, bai!

—Non dozak (dozuz) amalau mandoak?

—Danak galdu joazat (dodaz).

—Tirok (tira), ba!

—Eta zelan abil (zabiltz zeu) eu?

Eta bere barri guztiak emon eutsazan gazteak zarrenari.

Urrengo gauan, lamizulo aretara joan zan anai zarrena. Eta pago baten adarretan egoala, amabi mando eta amaika gizon agertu ziran, lamizulotik mendi aldera joiazala. Eta goizaldean bera sartu zan lamizulora.

Sartu zaneokxe, norbaitek atea itxi eutsan, eta:

—Ez dot (da) au, i (zu) ona lenengoz etorri azan (zaran) aldia.

—Lenengoz, ba!

—Egia esaten ez badaustak (daustazu), il egingo aut (zaitut); bestela biziko az (zara).

Orduan, bera barik, bere anaia zala len egondakoa autortu eutsen lapurrai.

Alperrik!

Beste lapurrak etorri ziranean, oneik eskuak gaiñean ezarri, eta an garbitu eben bera.

## LAMIEN ALKAR-IZKETA

Bermeo'tik Mundaka'ra bitartean, tontor baten azpian zelai bat dago. Lamiaran dau izena.

Bein, Lamiaranen barrutik, gizon bat joian, bidez.

Itxas-ondoko Errosape deritxon zubi-ondoko errekan be, lamiak bizi ziran. Eta areitako batek, bidez joian gizona ikusita, uluka ta karrazika, goi-aldeko lagun bateri deadar egiñaz, esan eutsan:

—I (zu), Lamiarango ori!

—Zer nai don (dozu) Errosapekoa?

—Or bidean datorren gizon orri ipiñi egion (egiozu) lakioa (tranpea).

—Zelan botako jautsana (dautzat) lakioa?

—Ez al dakin (dakizu) ala?

—Bai, baiña, Gabon-ariaz egiña jaroan (daroa) orrek bere soiñekoa (1).

## LAMIÑEN AZKENA

Igorre'ko Garamendi baserrian, gizon aundi bat Txilibistro eritxona, bizi zan.

Indarretan ba eukan, indarretan! Jesus, Maria ta Jose! Urkusun gora Garamendi'ra burdia lepoan eroaten eban, eta kontuak atera!

Erreka ondo baten, orrazi bat, lamin-orrazi bat aurkitu eban bein, eta kolkoan sartuta aurrera joan zan gure Txilibistro. Lamiña batek bidera urten, eta esan eutsan:

—Txilibistro, ekazu orrazia

ezpabere nik amaituko dot zure bizia.

Txilibistro'k lamiña zaputzetik oratuta, Garamendi'ra eroan eban.

(1) Gabon-ariaz egindako soiñekoak, alde txarreko izakien aurkako aal eta doaiak ditu.

Lamiña au beste guztiak lez esne-zale utsa zan.

Egunak eta egunak igaro jakezan etxekoai baituta euken lamin areri ezer eraso ezinik. Mutua irudian. Bein, bera sutondoan egoala, esnea mazkuluan irakiten asi zan. Eta lamiak, esnea alpe-rrik galdu ez eitean, berba egiteari emon eutsan, auxe esanez:

—Txuria gora, txuria bera.

Etxekoak, orduan, berba geiago eragitearren gogor artu eben. Eta batek lamiak zelan galdu ete leikezan itandu eutsan. Auxe erantzun eban:

—Doniane goizean jaioriko zekor nabar bi, bost ortzeko itaille-kaz errekan ibillita, galduko leitekez lamiak.

Auzorik-auzo zabaldu ziran, beingo baten, lamiaren itzok, eta Arratia'ko korta guztiak arakatu ebezan Doniane goizeko zekor nabarren billa.

Ganeko egunetan, soloko mokillak austen baiño gogotsuago eragoioen zekorrok itaillea errekan narraz erabilten, lamiñak uxatu gurarik.

Andik aurrera, ez da inguru areitan iñongo lamiñarik agertu.

## KURUTZEDUN OGIA

Lamindano deritxon Arratia'ko auzotegian, amak laba-sua egiten eragoian bitartean, nagar ta negar egoan bere alabatxoa atetan.

—Ez dago plagarik, ume ori ortik kenduko dauan plagarik ez dago? —esan eban amurruz laba-andreak.

Orduan ixil-ixillik gelditu zan neskatotxoa.

Gabaz ez zan agiri. Jo ta su ebillan bere ama, ume orren billa. Ez zan argitu.

Andik zortzi urtera, etxe atako mutiko batek bein baiño sarriago ikusi eban bere arreba, arako ume negartia, Lamindano'-ko arzulo-aurrean, orraztu ta orraztu. Neskato orraztu-zalea, norbait ikusten ebaneko, kobara sartzen zan.

Mixiolari entzutetsu bat agertu zan Arratia'ko Dima'n, aldi atantxe.

Lamindano'ko labanderea beragana joan zan, eta bere umea plageak edo eroan eutsala esan eutsan, arrezkeroko jazoera guztiak, zeatz-zeatz gaiñera, jakin eraginda.

Prailleak, orduan, labaldi baten zazpi ogi egiteko esan eutsan, zazpigarrena kurutzeduna. Eta guztiak arzulo-aurrean itzita, gura-soak inguruko sasi artean ostendu eitezela.

Esan eta egin. Zazpi ogi erre-barri laminzulo aurretxoan zabal-zabalik itzita, senar-emazteak euren buruak urrunegi barik ostendu ebezan.

Laster agertu zan neskatoa, eta ogiak, banan-banan, bere zulora eroaten asi be bai.

Zazpigarrena, kurutzeduna, besapean artu ebanean, ezin sartu izan zan laminzuloan.

Aita-amak euren gorde-lekutik urten, eta beragana polito-polito joanez, maitetsu artu, besarkatu eta bere etxera eroan eben.

Eta bidean joiazala:

—Zer egin don (dozu), neskato, zortzi urte luze oneitan? —itandu eutsan aitak.

—Amaren berbea betetzen egon naz.

## MUNTZARAZ'KO MARI-URRAKA

Naparroa'ko erregek esan ei eban:

Nire jauregiko gizandi baltz au azpiratuko dauana, orixe izango da nire alabearen senargai. Abadiño'ko Muntzaraz jauregiko etxeko-sume, Peru agertu zan, eta burruka luze eta gogor baten ondoren, mutil baltz a azpiratu eban.

Andik egun batzuetara erregeren alabeagaz ezkondu, eta bere Muntzaraz'ko jauregira eroan eban, an biak alkarregaz bizi izateko.

Semeak eta alabak izan ebezan. Ibon zan zarrena; eta Mari Urraka gazteena. Ibon zan oiñordeko. Eta gorrotoa eutsan, orregaitik, Mari Urraka'k.

Gorroto ori zala-ta, ostera bat eratu eban Mari Urraka'k Anboto'ko mendira. Eta Ibon'i be deitu eutsan ostera orretara.

Larrano gaiñean bazkaldu eben danak. Eta ardao geiegi emon eutsan Mari Urraka'k Ibon, bere neba nagusiari.

Ainbeste ardao beteta, lo gelditu zan Ibon, Larrano'ko pagopean. Mari Urraka, orduan, neskame bat beragaz artuta, eta ixil-ixillik ondoratuta, ango atxetik beera, Azpe aldera jaurti eban bere nebea, iñor konturatu ez zala. Eta antxe il zan Ibon errukarria!



Etxera etorri, eta aitak:

—Non don (dozu) (dago), Mari, nire seme, Ibon galanta?

—Atxetik beera jausi, eta il egin da gizajoa!

Aitari siñestuerazo eutsan, baiña dar-dar egiten eutsan Mari Urraka'ri bere barruak.

Batzarra euken, gau atan, Prakagorriak, Muntxaraz'ko jauregian.

Eta Mari Urraka dar-dar eta Prakagorriak bran-bran.

Eta Prakagorriak Mari Urraka artu, eta Anboto'ko tontorrera eroan eben. Eta an dago, arrezkeroz, Anboto'ko Damearen neska-me. Leza barruan batzuetan, goruetan; eta zeruan-zear besteetan, suzko hola baten inguraturik.

## LIÑUEN PENAK

Lekeitio'tik Markiña alderantza Okabio izena dauan toki bat dago. Bertako lezan lamiñak bizi ei ziran; ezin eitekean inor leza aren aurretik igaro, gaueko amabietatik ordubietara bitartean.

Bein baten, gizon bat, tema eginda, leza-aurretik joan ei zan gaberdian.

Lamiñak oratu, eta estu erabillen gizajoa, jateko eroan bear ebela ta. Estutasun aretan gizonak esan eutsen:

—Eroan nagizue, nai ba' dozue, orra! Itzi, baiña, lenengo liñuaren penak esan arte.

Esan, ba, nai ba dok (dozu).

Eta asi zan gizon ori liñuaren penak, geldi-geldi esaten...

Lenengo soloan atera, gero legortu, gero osiñean beratu, gero legortu, gero garramatu, gero malluaz jo, gero espatatu, gero txarrantxatu, gero goruan ipiñi, gero ari egin, gero matasatu, gero egosi, errekan jo, gero arildu, gero eun egin, josi jantzia, urratu, errekan jo...

Astiro joan gizona, eta lamiñak:

—Amaitu egik (egizu) arin, galdua az (zara) bestela!

—Ointxe, ointxe amaitzen don (da) dana.

Eta gizon orrek lengoari ekin beti, astiro-astiro.

Alango baten, Okabio'ko oillarrak kukurruku egin, eta lamiñak be iges egin, itzok esanaz:

—A Okabio'ko Marti-oillar gorria!, eroan daustak (daustazu), nik aparitako neukan lebatz aundia. Azeri gaiztoak galduko al jok (dau) ire (zure) ezkerreko begi gorria.



## ATSO ULE ERREA

Anai bi, kortara beiri esnea erasten, argi ta guzti, joaten ziran gau guztietan. Txori batek, bein baiño geiagotan, egoakaz argia iltzen eutsen.

Arraupau bein, eta bien artean anka banatatik oratuta argitan erre eben. Eta ez-ilgo bai-ilgo eukela, korotz pillora bota eben txori ori.

Biaramonean, auzoko atso zar bat burua soil-soil ebala ebillan kalean (1).

## MARI TA URREA

Lenagokoak esaten eben, Markiña aldeko neskatxa bat, Gabarro'ko mendira joan zala ardizain. Eta an dagoan leza ondora urreratu zanean, Anboto'ko Mari'k artu eta bere lezara eroan ebala.

Eta an, bere leza aretantxe, urteak joan urteak etorri, neskatil eder-ederra azi zala. Neskatillaren ango eginbearra, goruetan egin eta goruetan egin zala, eta ez ebala egundo leza aretatik urten.

Eta bein baten, Mari'k esan eutsan neskatilleari:

— Kanpora urten bear don (dozu), oraintxe!

— Ez dot kanpora urten nai, ondo nago ni emen.

— Ez, ez..., urten egin bear don (dozu).

Eta urteeran esan eutsan barriro:

— Artu egin (egizu), ortxe, esku bete ikatz!

— Eta zertarako dot nik ikatza?

— Ik (zuk) artu, eta gero ikusiko!

Artu eban, ba, ikatz ori; urten eban kanpora. Eta an, bere eskuetara begiratu ebanean, urre gorri biurtuta ikusi ei eban bere eskuetako ikatza.

(1) Sorgiñak abere ta egaztien itxuran agertzen ei dira sarri.

## EZAK ETA BAIK

*Mari*, aide eta sorgin guztien Ama ta Erregiña *Ezez* eta *Baiez* bizi ei da.

Baserritar batek eun anega gari batu ba ditu urte atan, eta larogei bakarrik artu dituala esan, *Ez* esandako ogei orreik Mari'k beretzat artuko ditu.

Bardin larogei artu ta ogei artu dituala esango ba'leu, *Baiezko* ogei orreik be beretzat artzen ditu Mari'k.

Guzurrezko anega orreik *Ezari* eta *Baiari* emonak ei dira.

Ona zer jazo jakon Aketegi'ko artzain bati. Aketegi'n (Aketegi Aitzgorri'ko leza bat da) artzain bat sartu ei zan ardi baten billa. An ei egoan Mari, Anboto'ko lezan bezela.

Eta artzain ori ikusita, asarre baten, ari eldu gura eutsan. Baiña, artzaiñak samatik beera errosarioa sartu ei eutsan.

— Kendu au, kendu au —deadar egiten eutsan Mari'k.

Bai, emetik ateratzen ba'non (nozu) —artzaiñak erantzun.

Bizkarrean artuta, atera ei eban. Eta an, ate aurrean, artzaiñak errosarioa kendu.

— Ondo etorri jak (jatzu) ondo ikasia etortea eta nire lagunak emen ez izatea —esan eutsan Mari'k.

— Non dozan (dira), ba, ire (zure) lagunak?

— Or jabizak (dabitz) *Ez* eta *Baien* amarrenak batzen.

## ARLETZE'KO LEZAN

Andia'ko mendian Arletze'ko lezea dago.

Eta sorgiñak bizi dirala bertan esaten da ango inguruetan.

Ba-ebillan, bein, inguru areitan Lizarraga'ko artzain bat, bere ardiak batu, eta bere txabolaren billa.

Lentxoago egindako edurrak bide guztiak jan zituan eta, bideak galduta, ez ekian nondik nora jo, bere txabola ori aurkitzeko.

Oin-urratsak ikusi zituan, onetan, eta arein bidetik jarraitu eban, bere txabolara joiazelakoan.

Joan, joan eta joan, eta Arletze'ko leza barruan galtzen ziran oin-urratsok.

Orduan konturatu zan, len aitatzen ziran sorgin areik, oraindiño be bizi zirala, eta lengo leza aretan bertan bizi be.

## ATSO ANKA-AUSIA

Andra bat supazterrean goruetan egoala, gabeen-gabeen katu bat etorten jakon.

—Jesus! —esan eutsan bein senarrari —katu peste bat gau guztietan agertu, eta gonarik gona ibiltzen jat. Bildur be ba-naz sukaldetan egoten.

—Neuk egingo dot goruetan gaur gabeen, ia katu ori neuri etorten jatan ikusteko.

Ba—dago gizona *irra ta irra*, eta ba-datorchio katua, ke-zulotik beera. Ate ondora joan, eta dirautso:

—Gizona eta goruetan?

—Katua, eta barriketan?

Goru-kirtena indar guztiaz jaurti, eta anka bat ausi eutsan gizon gorulariak katuari.

Urrengo egunean, auzoko atsoa errenka-errenka ebillan.

## SORGIN BARRIA

Etxe baten, andra bi eta gizon bat bizi ziran.

Androk, gizona ogeratu arren, ez ziran, gau askotan, lotara joaten.

Gizon ori susmotan sartu zan: zer egiten ete dabe gure gonadunok ogera ez datozen gabetan? Obeto jatiteko, suburuko zulotik begira egotea gogoratu jakon.

Emakume biak sutosteko arriari bira bat emon, ango lapikoa atera, eta bere barruko koipekiaz gorputz guztia igurtzita:

—Laiño guztien azpitik, sasi guztien gaiñetik —esanda, tximiñetik gora urtenda, bat batean ezkutau ziran.

Beste ainbeste agitea bururatu jakon gure gizonari. Sukaldera joan, su osteko lapikoa artu eta atzamar bi bertan sartuta, ango

koipekiaz bere gorputza igurtzi ebanean, okerretara esan zituan atsoen sorgin-esakerak:

—Laiño guztien gaiñetik, eta sasi guztien azpitik.

Ibilzen asi zanean, larri arren, maiari oratu eutsan. Ezagun zan koipekia indar aundikoa zana. Mai ta guzti atera eban gizona, eta batean goi-goian: "laiño guztien gaiñetik"; bestean bee-beean "sasi guztien azpitik" luzaroan tarraz ibilli gizona, ta eskuak eta arpegia urratuta eldu zan Akelarre'ra.

An akerrari mun egitea zan.

Besteak egin eutsoenean, berak be egin bear.

Ta ba-doa, ba-doa eta ba-doa. Eta eperdiari mun egitea ondo eritxi ez ta, kolkotik abarka-eztana aterata, indar guztia eperzulo-tik sartu eutsan.

Akerrak, orduan, atzera begira:

—Sorgin barri onek, bizar latza dau, esan eban.

## GORRITI'KO SORGIÑA

Gorriti'ko sorgiña leizar baten gaiñean egoan, gau baten.

Txabola zarreko artzaiñak ardiak galdu zituan.

Sorgiñak leizar gaiñetik arrana jo eban.

Jagi zan artzaiña bere ogetik, eta arran-otsik ez. Arran-otsa, barriro be. Jagi barriro, ta ezer ez.

Irugarrenez jagi zanean, sorgiñak ebiltzala uste, eta eskopeta bat artu eban. Eta leizar ondora urreratuaz, sorgiña leizar gaiñean ikusi, eta tiroz bota eban andik.

—Bota egik (egizu) beste bat —esan eutsan sorgiñak—. Bat nai-ko don (da) —erantzun artzaiñak.

Bigarrena bota ba'leutso, osatuko zan (1).

(1) Sorgiñak bakotxaren etsaiak dira, eta bikotxaren lagunak. Bakotxa = nones. Bikotxa = pares.



## PRAKAGORRI

“Prakagorriak” sorgiñen morroitxoak dira, eta orratz-ontzian sartuta eroaten dabez. Orrantzontzi bakoitzak olango lau artzen ei ditu; eta deabrutxoaren itxurea ei dauke; neurritz txiki-txikiak, eta jantziz, praka-gorridunak.

Donianeko gauan sortzen ei dira, Donianeko garoaz batera. Eta erosi be al izaten ei dira.

Ona zer diñoen Kortezubi'ko errian, deabrutxo onei buruz:

Gizon batek prakagorriak erosi eiz-zituan, lana egiteko. Orratz-ontzi baten eukazan gordeta. Eta lana eragiteko gogoia etorri jakonean, orratzontzitik atera, ta agindu eutsen:

—Basoko mukurrak ekarri bear dozuez.

Ekarri ebezan, eta eurak itandu:

—Eta zer egingo dogu orain?

—Karea egosteko arria ekarri.

Ekarri eutsen arri ori, eta barriro itandu:

—Eta zer egingo dogu orain?

—Kare-arria erre.

Erre eben karabikada eder bat, eta barriro itandu:

—Zer egingo dogu orain?

Gizonari orduko lan guztia amaitu, eta laugarren lan bitxi au agindu eutsen:

—Orko galbai ori artu, eta ura ekarri bertan.

Joan ziran prakagorriak galbaiagaz iturrira ta urez bete. Bete ala, baiña, beko zulotik isuritzen zan dana, eta ezin urik ekarri etxera.

Eziñezkoa zala, ba, nagusiak agindutako azken lan ori, eta prakagorriak alde egin eben baserritar aren menpetik.

Prakagorriak baiño gizon baten buru ona ohea da nonbait.

## URREZ BETETAKO IDI NARRUA

Larrun, Bidasoa'ko Bera eta Lapurdi'ko Sara erri artean dagoan, tontor bat da.

Espiritu Santuaren izenean eregitako ermitatxo bat egoan len bertan. Ondatuta dago orain.

Lapurdi'ko sorgiñak batzen zirala emen, esan oi da ingurueta-ko errietan. Pentekoste biaramonean da bertako jaia. Eta sekulako erromeria egiten da bertan, egun orretan.

Izandako ermitatxo orren ondoan, illarri antzeko arri aundi bat dago. Eta inguruetan diñoenez, urre-gorritz betetako idi-narru bat ei dago aren azpian. Eta arri onen gaiñean auxe jartzen dau, lorrin-samar idatzita:

—Ni itzultzen nauanari, ez jako damutuko.

Pentekoste biaramonean, gazte-taldeak ardaoz ondo berotu ta gero, arri ori itzultzeko asmoa artu eben. Ekiñaldi askoren ondoren, itzuli eben alako baten, eta lurra aztertzen asi. Zulotu ta zulotu ta zulotu, sekulako utsunea egin eben. Eta urre-gorriaren usaiñik be ez.

Azpikoz gara jasotako arritzarrari begira jarri zan, onetan, mutil bat, eta beste idazkun au ikusi, eta argi irakurri eban:

—Len ondo ninduan..., eta orain obeto.

Onen antzeko ipuin-zar asko esaten dira Euskalerrian arzulo eta trikuarriak dirala-ta.

## AUZA'KO URREA

Baztan ondoko Baigorri'ko bazterraldean, Auza deritxoen mendi bat dago. Leza aundi bat dago mendi orretan. Eta inguruetan diñoenez, urrez beteriko idi-narru bat ei dago bertan, eta suge aundi bat eta akerra aren zain.

Aldude'ko abaidea sarri joaten ei zan, urre, suge eta akerra ikustera. Eta otoitz eta otoitz egoten ei zan luzaro, leza atako pizti biok andik uxatzeko.

Eta aren otoitzak sugea meetu ta argaldu bai, baiña, andik uxatzerik ezelan be ezin eben lortu.

Gure Jauna kolkoan ebalat joan zan bein, ango urrea jaso nairik. Urreari ukutu bai, baiña ezin eroan al izan eban. Urreari ukutzen eutsan bakoitzean, sugea biztu, arrotu ta bildurgarri jarten ei jakon aurrean.

Urre barik aldendu zan, ba, gure abadea. Eta andik urtekeran itz oneik entzun ei zituan:

—Eskerrak or, ire (zure) barruan, daroan (daroazun) orri, ez intzan (zintzazan), bestela, emetik urtengo.

Arrezkero, inguruko baserritarrak esaten ei dabe:

—Auza, ba-da an gauza; baiña, nork oratuko dautsa?

## ARPEKO SANTUA

Bidarrai'ko leza baten, berez sortutako arrizko irudi bateri esaten jako *Arpeko santua*.

Ona zelan sortu zan, inguruko artzaiñak diñoenez:

Artzain neska bat galdu ei zan Euzkai mendian. Eta aren burua bakarrik aurkitu ei eben. Gero, urte askotan, itzak entzuten ei ziran ango atxetan.

—“Ago (zagoz), ago (zagoz)...” esaten ei eban baten batek, Euzkadi-mendi aldetik.

Bein, gaberdian, argi bat ikusi ei eben arpe aretan sartzen.

Joan ei ziran arpera inguruko baserritarrak, eta an ikusi eben santuaren irudia.

Gero ez ei zan barbarik entzuten.

Arrezkero, jente asko joaten da arpera, santu dalako orri otoitzak egitera. Eta otoitzakaz batera, kandelak biztu eta dirua be botaten dabe arpe zulora. Eta bertan jaiotzen dan uragaz gorputza igurtziten dabe, begi eta narru-azaleko gatxen babesgarri.

Osatuen gomutagarri (exvotos) asko dagoz, barruko ormetatik zintzillizka.

Bertan dagoan Arrusia'ko baserritarrak, arpeko atea itxi, eta dirua eskatzen ei eben, bertara sartzegaitik. Andik gitxi barru, baserriko ardi guztiak izutu ta arrapaladan mendiz beera asi, eta danak galdu ei ziran.

Zeruko zigorra zala, eta atea barrero zabaldu eben.

## ARBEITZA'KO OSIÑA

Orain, Arbeitza'ko osiña dagoan tokian jauregi bat egon ei zan len, eta jente oso aberatsak ei ziran bertan bizi ziranak.

Ondasunez aberatsak, baiña biotzez gogorak eta zikoitzak. Beartsuen bat etxerantza etortzen ikusten ba' eben, atea itxi, eta txakurrak axatzen eutsoezan.

Neskame bat bizi zan aberats areikaz. Eta au oso biotz onekoa zan, eta min aundia emoten eutsan bere nagusien jokabide oker orrek.

Eskeko batek jo eban, bein, jauregiko atea.

Neskameak ikusi eta pitxar bat artuta, iturrira joialakoan, ogizati eder bat emon eutsan eskekoari, aren ondotik igarokeran.

Eta eskekoak eskerrak emonaz, etxe aretatik iges egiteko agindu eutsan, sekulako zigorra jausteko zala bertara-ta.

Alan egin eban, egun atan bertan, neskame arek.

Eta gaua etorri zanean, sekulako zurrumbillo eta zaratea entzun ei zan inguru aretan.

Urrengo goizean, bertaratu ziranean, an ez egoan ez lengo baratzik, ez lengo jauregirik, ez lengo jenterik...

Osin aundi bat agiri zan, lengo aberats zikoitz arein lekuan.

## BASAIKOAREN LOREA

Nabarniz ganeko Illuntzar deritxon mendian, leza bat dago, iñork sekula ondorik neurtu bakoa. Leza onek sasiz eta otaz itsutua dauko beronen agoa, eta nonbait aizeak eroandako aziren batzue-tatik erneta, basaiako bat eukan lanago.

Emakume abarkadun gona gorri bat, umetxo bat eskutik eba-la, igaro zan bein leza-inguruan zear.

Umetxoak basaiakoaren adarretan lorea ikusita, bere berbeta-txoan, auxe esan eutsan amari:

—Ama, pitxia.

—Ez, maitetxo, kaka dauko.

—Pitxia, pitxia!

Au esanda negarrari emon eutsan lenengo; gero, *blaust!*, zapart edo salto eginda ota eta sasi artean geratu zan, ez gora ez beera egin eziñik.

Amak, au ikusita, txillioka, zapart zoli bat egin eban berak be. Ama ta ume, eun sasi zatituaz, beste ainbeste saguzar ta belatxinga leza barrutik uxatuaz, geldi-geldika, leza barruan amildu ziran.

Iñork ez daki arrezkero euren barririk.

Mendi barrenean, burdin-ur gorrizkea dario atxari. Baserrita-rrak uraren gorritasuna ikusita, ama errukarri arexen gona gorri-tuak dirala uste dabe.